



Arg.: M. Albisu



BEASAIN
FOTOETNE

**Negatiborik
gabe**

**ARGAZKI ZAHAR ETA BERRIETATIK KOPIAK EGITEN DITUGU,
JARRI DUGUN "FOTO-FOTO" FUJIFILM PRINTER BERRIAREKIN**

Idiazabal, eskola-umeak
1924 inguruan

Coen ORDIZIA

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 88 87 02

BEASAIN



MUJIKA



BEASAIN

☎ 88 74 00

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



GOIERRITARRA

ALDIZKARIA

KAMIXETAK SALGAI

Txuri beso motza: 1.400 pzta.

Gris beso luzea: 1.700 pzta.

Sudadera (grisa): 3.000 pzta.



NON?

Ataun: Urbieta jatetxea

Beasain: Basakana, Arrano eta Loinatz

Idiazabal: Xume taberna

Lazkao: Gerriko liburudenda eta taberna

Legorreta: Olaso taberna

Ordizia: Arantxa, Herrikoa eta Sarri taberna

Ormaiztegi: Itxune taberna

Segura: Elorripe taberna

Zaldibia: Joxepane eta Kultur Etxea

Zegama: Txanton taberna

Zerain: Mandioa

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Gabino Murua, Rufino Iraola,
Izaskun Salazar, Koldo Urresta-
razu, Urko Irastorza, Josune
Amondarain, Asier Imaz, Iñaki
Erauskin, Joxepa Madariaga.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.000 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Jandro ordiziarra Ingalaterran futbolari

Alejandro Calvo ordiziarra, futbol munduan 'Jandro' bezala ezaguna dena, Ingalaterrako Scunthorpe United taldean ari da jokatzeko denboraldi hasieratik.

Aurten Eibarrekin zuen kontratua bukatu eta ez zioten berritu. Inguruko maila nagusietako taldeek ez zuten interes handirik azaldu eta orduan bere ordezkariak Ingalaterran jokatzeko aukera azaldu zion. Londresetik gertu dagoen Scunthorpe herrira astebeteko froga egitera joan eta bertan geratu zen.

Scunthorpe taldea 3. mailan dago, baina ordiziarraren esanetan hemengo 2.B-ko talde indartsuen maila beretsukoa da. Bertan futbola era ezberdinean hartzen dute, askoz ere gehiago bizi da, bakoitza bere herriko taldearekin identifikatuagoa dago. Taldeen egitura sendoagoa da,

estadioak 'estadio' itxura gehiago dute, taldeek beren dendak izaten dituzte, hemengo talde nagusiek bezala.

Jandro bera ere protagonista izan da, egunkarietan ateratzen da eta espektazio handiarekin hartu dute. Bera da taldeko lehen atzeritarrak. Titular ari da jokatzeko eta piskanaka bertako futbolera ohitzen ari da. Nobleagoa da hango jokatzeko modua, arbitroa ez da hainbeste engainatzen eta indar gehiagoko jokua da, bere ezaugarrientzat egokia.

Ingelesik ez zekien joan zenean eta orain arte familia batean bizi izan bada ere, orain pisu bat aurkitzen ari da. Oraingoz, bertako futbola ezagutu, ingelesa ikasi eta bertan urtebete egiteko asmoa du. Aurretik zer egingo duen planteatu gabe.

BOTA BERTSOA



Alaitz Sarasola

Zaireri begira

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

Zaireko gudu arriskutsutik jendea ihesi doa tutsien eta armadakoan artean liskar sendoa milaka hutu, burundiar ta ruandarren exodoa gehienek hartu dute azkenik atzerriratze ildoan.

"Grandes Lagos"-ko eztabaidekin giza laguntza eten da errefuxiatu artean hainbat heriotza ematen da ta Europear Batasunak ez daki hori nola senda bitarte hortan areagotuz doa hilotzen zerrenda.

**Eusko Jaularitzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Araka eta manio- bren zergatia

Eskutitz honen bitartez, urriaren 21etik 26ra bitartean Goierri aldean eta baita Euskal Herriko beste txo-koetan ere espainiar militarrangandik bizi izan genituen maniobra militarren zergatia azaltzen saiatuko gara.

‘Fuerzas Aeromóviles del Ejército de Tierra’-ko (FAMET) helikopteroen laguntzaz, Madriden ondoan dagoen Alcalá de Henares-eko ‘Brigada Paracaidista’-k (BRIPAC) burutu ditu zehazki maniobrak Goierri aldean. Brigada hau, espainiar ejerzitoko ‘Unidades de Intervención Rápida’-ko (UIR) bizkarhezurra da eta denbora epe oso labur batean ekintza armatuetan parte hartzeko bereziki prestatuta dago. ‘UIR’ honen zeregina, espainiar estatuko edozein lekuetan “krisi” bat gertatzen denean, independentzi aldarrikapen, matxinada, autodeterminazio erreferendum..., ordu batzuen epean koarteleatik atera eta aldarrikapen hauek armen bidez zapaltzea da. Ildo horretatik doa, ‘UIR’-en buruzagitza nagusia Gasteizen ondoan dagoen Arakako koartelera traslatazeko erabakia. Euskaldunok eta guk hartzen ditugun erabakiak gertuagotik eta hobekien kontrolatzeko.

Beraz, irakurlea konturatuko den bezala, Goierri aldean ibili diren soldaduek ez ziren 9 hilabetez soldaduska egiten ari diren “pardillo” batzu, baizik eta espainiar ejerzitoko hobekien prestaturiko tropa profesionala. Nahiz eta Usurbe puntako istripu parregarriaren ostean beste iritzi bat atera

daitekeen, etsaia ez da sekulan gutxiagoz hartu behar. Herri hau, alde bateko zein besteko militarren erabakien pean bizitzea ere... Hau mixeria!

Zentzu horretan ulertu behar dira maniobra hauek. Goierri bere kokapen geografikoagatik edozein krisitan izugarritzko garrantzi estrategikoa du, bere eremuetatik komunikabide ugari igarotzen bait dira: Paris eta Madrid lotzen dituen N-1 autobidea, Nafarroa eta Bizkairako errepideak, fabrika haundie eta honen pean lanean diharduten industriak, trenbidea...

Edozein krisi militar edo politiko batetan irakurleak pentsa dezala zein..., Goierri lehentasunezko helburu militarra da. Al tiempo.

Goierriko EGI

Eskerrak ez dira nahikoak

Gure senitartekoa den Josetxo Zeberio, beasaindar euskal errefutxiatu politikoa, pasa den ekainean Costa Rican detentua izan zen pasaporte faltsua erabiltzeaz akusaturik.

Ez Costa Rican ez Espainiak Estatuan ez du beste inongo kargurik. Hala ere, detentua izan zenean hemengo prentsak bere berri azaldu zuenean, informazio polizialei esker suposatzen dugu... ia epaitua izan zen: (Detenido terrorista vasco en Costa Rica.- El Correo).

Senitartekoek berria jaso genuenean ohizko beldurrez aparte gure kezkarik handiena... Josetxo Ertamerrikako herrialde batean

kartzeleratua eta bakarrik egotea zen... Hala abokatu eta senidetako bat bertara joan ginen.

Iritsi bezain pronto non topatzen garen... gure zain zeuden lagun batzuekin. A ze harridura... Bakarrik zegoelakoan eta bapatean han aireportuan bertan gure zain... hantxe bertan azaldu ziguten hiriburutik 400 kilometroa zegoen kartzelan Josetxo bisitatu zutela eta bere animoen berri eman ziguten.

Nola ez ba animatu.... ikusita 6.000 km.ra badiutugula “lagunak”, han bizi diren euskaldunak... Berria jaso bezain pronto elkartu eta mugitzen hasi ziren... eta ez hori bakarrik... beraien etxeetako atea parez pare ireki zizkiguten.

Benetan, han jasotako babesa eta elkartasuna inoiz ezingo dugu ordaindu. Costa Ricako euskaldunak, Zeberio senitartekoa beti zorretan izango duzue... eta jakin badakigu eskerrak ematea ez dela nahikoa.

Gutun hau ezin dugu bukatutzat eman bertako “tico” eta organismo ezberdinak aitatu gabe. Aukera izan genuen giza eskubideen alde lan egiten duten erakunde eta elkarte guztiekin egoteko: Codeu, Codehuca, Serpag... Beraiek zuzendu gintuzten Acnur eta C.I. de D.H.-ko lehendakaria den J. Aguilar Urbinarengana... hauek asesoratuta gure anaiaren egoera normalizatu eta ez entregatzeko garrantia bezala “aterpe eskubidea” tramitatzen hasi ginen...

Hil honen 15ean epaitu zuten. Hasieran benetako hilabeteko kartzela-zigorra nahikoa duela diote bertako

abokatuek... baina bere etorkizunak bai kezkatzen gaituela. Estradizioa eskatzerik ez dutenez entregatua izateko arriskua dago, jakinda polizien esku gutxienez 5 egunetako inkomunikazio eta torturak jasan beharko dituela...

Kezka bai, baina hasiera hartako beldurrak gainditu ditugu... Jakina gure senidea ez dagoela bakarrik...

Zeberio sendia (Beasain)

Bataioa erdaraz Seguran

Gutun honen bidez nere harridura eta haserrea adierazi nahi ditut, pasa den urriaren 27an Segurako Parrokian erdaraz ospatu zen bataioagatik. Bertan, bataiatutako 4 umeak, hauen gurasoak eta familiakoak elkartu ginen. 8 gurasoetako batek euskara ulertzen ez zuela eta, hitz batzuk erdaraz egingo zituela adierazi zuen Josu Elorza bikarioak; guztiz normala. Baina lehena go bukatuko zuela esanda, funtzio guztia erdaraz egin zuen. ‘Aita gurea’ eta kope-tan Aitaren egiteko momentuak kenduta funtzio guztia erdaraz izan zen. Orduerdi pasea! Non eta Segurako elizan! Nik neuk, latinez entzunda nituen antzeko funtzioak, baina erdaraz ez dut halakorik nire herrian ezagutu. Gure parean tokatu behar. Egun guztiko erremina geratu zitzaigun, bai niri, eta baita beste guraso eta familiakoei ere.

Xalbador Agirre (Segura)

TXANDAKA

Mozkorra mozkorra- ren gainean

Alkoholak bakarrik ez nau
mozkortzen, ez.



Mendira joan eta han ikusitako paisaiak, hango kolore, txorien kantu-hots eta isiltasunak; errekatxulo, harizti, pagadi eta belar freskoak; behor, ardi eta behiek; hango usain, eguzki-izpi, hodei eta haizeak barruan ezin kabituzko poza eta txorabioa sortarazten dizkirate, burua nahasten didate, *mozkortu* egiten naute!

Eta nik uste nuen neri bakarrik gertatzen zitzaidala hori, nire kontua zela, baina bai zera! Inguruan bizitzeagatik ezagun soil ziren kide asko bihurtu zaizkit lagun, lagun min, mendiari esker.

Menditik herrira jaistean, *zibilizazioa*, zementuzko eraikinek, zaratek, abiadurak, kiratsak eta kutsadurak gogaitu egiten naute, goragalea ematen didate. Mendiko poza eta esperantza, herrian, tristura eta etsipen bihurtzen zaizkit.

Eskerrak mendian harrapatutako mozkorraldi naturalari, artifizialki bederen, alkoholaz jarraipena eman diezaiokekan herrian, *zibilizazioan*, tabernetan... Edan, penak ito arte!

Menditarra naiz eta mendia dut maite, ezin bizi naiteke, menditik aparte...

Joxepa Madariaga

Etxegaraten peajea jartzearen alde al zaude?



Pedro Gorrotxategi
69 urte, erretiraturua
idiazabaldarra

Ez. N-1 osoa dohainik da eta Etxegarateko 11 kilometro kobratzea triste da. Peajea merkea izango dela diote, baina hortik hasten da, gero goraka joango da.

Begoña San Sebastian
43 urte, etxekoandrea
idiazabaldarra

Ez zait gustatzen peajearen ideia hori. Merkea izanagatik kontra nago. Beti joan izan gara Nafarroa aldera debalde, eta orain peajea ordaintzea...



Arkaitz eta Iñaki
20 urte, ikasleak
idiazabaldarrak

Pagatze guztiaren aurka gaude. Autopista ordaintzearekin nahikoa dugu. Ibili behar garen guztia ordaindu behar badugu arreglatuta gaude. Altsasura parranda egitera joateko ere gaizki peajearekin.

INDUSTRI-TEKNIKARI IKASTAROAK

Formazio Sistema Irekia
Multimedia Metodologia - Interaktiboa

- * ELEKTRIZISTA INSTALATZAILE KARNETA
- * AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK
- * ORDENADOREZ LAGUNDUTAKO DISEINUA
- * INJEKZIOZKO TERMOPLASTIKOAK
- * ELEKTRONIKA ANALOGIKOA
- * ELEKTRONIKA DIGITALA
- * ELEKTRIZITATE INDUSTRIALA
- * AUTOMOBIL DIAGNOSIA

INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37



Poltsak
Oinetakoak

Bidaietarako artikuluak

Nagusia, 13
BEASAIN

Sta. Maria, 15
ORDIZIA

ZINEA

LEGORRETA:

Azaroak 18, 'El Padrino II', 20:30etan, Herri Zineman.

Azaroak 25, 'Seven', Herri Zineman, 20:30etan.

GOIENIZ:

Azaroak 28, 'La tarea', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN:

'Twister'. Ostirala 15: 19:30 - 22:15; igandea 17: - 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 18: 22:15.

'Condemor'. Larunbata 16: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'La cancion de Carla'. Ostirala 15: 22:15, igandea 17: 19:30 - 22:15; astelehena 18: 19:30.

'La tienda'. Larunbata 16: 19:30 - 22:15.

'Mision imposible'. Igandea 17: 16:45.

'Reaccion en cadena'. Ostirala 22: 22:15; igandea 24: 19:30 - 22:15; astelehena 25: 19:30



'La tarea'

J. H. Hermosillo
(Mexiko 1990)

Virginari, eskolan aurkeztu behar duen ikasturteko irudi-lana egiteko asmoz, izkutuko bideo kamera batez Marcelo izeneko amorrante ohi batekin izango duen maitasun topaketa bat grabatzea bururatzen zaio. Kamera zorua mailan jarrita, Virginiak dakizkien amarru guztiak erabiliko ditu, kosta ahala kosta, bere frogetako 'kuia' irudiaren eremutik atera ez dadin.

Argudio honen bidez, J. H. Hermosillok bere zinemagintzan zehar ardura berezia eragin dioten bi galetan murgiltzeko bidea aurkitzen du, saiakuntza formala eta sexualitatea, alegia.

Beraz, osotasunean begiratuta 'La Tarea' indar erotikoa nabarmenez eta umore handiz osatutako komedia berritzaile ausarta delakoan gaude.

MUSIKA

BEASAIN:

Azaroak 21, Santa Zeziliako kontzertua Musika Eskolako ikasleen eskutik, Udaletxeko Batzar-Aretoa, 19:30etan. Ondoren, 20:30etan, Musika Eskolako Bandaren kalejira.



Azaroak 24, Oskorraren kontzertua, Kepa Junkera eta Kukubiltxo taldearekin batera, Antzizar Kiroldegian, 19:00etan. Sarrera: 1.000 pta.

Azaroak 27, Koldo eta Arantxa trikitilarien 'Murrumendiko Mari' diskoaren aurkezpina, Usurbe Antzokian, 20:00etan. Sarrera: 500 pezeta.

ORDIZIA:

Azaroak 15, 'Cuarteto Zarabanda', 19:30etan, Barreran, Bach musikaldiaren barruan.

Azaroak 16, Oxfordeko 'The Choir of New College'-ren kontzertua, Parrokoian, 20:30etan, Bach musikaldiaren barruan.

Azaroak 16, Benito Lertxundik 'Hitaz Oroit' diskoa aurkeztuko du, Majori Kiroldegian, 22:30etan. Sarrera: aurretik 800 pezeta, egun bertan 1.000 pezeta.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Azaroak 20, 'Banku zerbitzuei' buruzko hitzaldia, Euskadiko Autonomi Erkidegoko Kontsumitzaileen Elkartearen teknikarien eskutik, Asmuben, 10:00etan.

Azaroak 27, Kontsumoaren Arbitrai Batzordeari buruzko hitzaldia, Asmuben, 10:00etan.

ZALDIBIA:

Azaroak 19, 'Euskal Herria XX. mendea', Joseba Goñi Galarragaren eskutik, Kultur Etxean, 19:30etan.

Azaroak 21, 'Espainia-Euskadi: Gatazka? baten klabe historikoak', Jose Antonio Rodriguezen eskutik, Kultur Etxean, 19.30etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Azaroaren 17ra arte, Jose Luis Zumetaren erakusketak, Usurbe Antzokian.

**AUTOESKOLAKO
IRAKASLE EGIN ZAITEZ**

**HILEAN 200.000
PEZETA INGURUKO
SOLDATA**

**INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37**



**GOIAGI
OKINDEGIA**

Ogigintzan onenak!

**Etkezaretara z/g
ORDIZIA ☎ 160501**

- ◆ Egurrezko labearen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

**Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737**

Azaroaren 19tik 22ra,
'Kaixo Ura!' erakusketa,
Usurbe Antzokian.



Azaroaren 29ra arte, Javier Fernandez erakusketa eta diapositiba emanaldia, Aterpe Tabernan.

ORDIZIA:

Azaroaren 22ra arte, Manuel Salgadoren eskultura erakusketa, Barrenan.

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Azaroak 27, Arrate Leunda ipuin kontalariarekin irakurketa suspertzeko emanaldia, Bibliotekan, 17:30etan.

Tolosako Txotxongiloak

Tolosako Txotxongilo jaialdira datozen taldeak Goierri ere bisitatuko dute. Hauexek dira emanaldiak:

- **Azaroak 28:** *Aladinoren lanpara* aurkeztuko du Poloniako Teatr Baj taldeak, Beasaingo Usurbe Antzokian, 18:00etan. Sarrera: 500 pezeta.
- **Azaroak 26:** *Dratewska zapataria*, Poloniako Teatre Bis taldearen eskutik, Ordiziako Herri Antzokian, 19:30etan.
- **Azaroak 27:** *La princesa de fresa*, Iruñeako Gus Marionetas taldearen eskutik, Herri Antzokian, 19:30etan.

Koldo Izagirre

'Azkenaz beste' liburua aurkeztuko du Koldo Izagirre idazleak, azaroaren 21ean, 19:30etan Beasaingo Udal Liburutegian. Antolatzailea: Kultur Kide.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 17, Adarrara.

Azaroak 24, Larraona-ra.

Arrano Kirol Taldea:

Azaroak 17, Anbotora.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 17, Intza-Iru-mugarrieta.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 17, Brinkola-Omakio-Legazpi.

Azaroak 24, Ganbo.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Lanak ordenadorez pasatzen ditut. Euskaraz eta erderaz. 88 13 03. Isa. Beasain.

☐ Kitarra jotzeko klaseak hartu nahi nituzke. 160744. Eguerdietan deitzeko 885513.

☐ Neska euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 889547 eguerdian.

☐ Eskusoinuak konpon-tzen dira, marka eta modelo guztiak. 47 00 01. Arratsaldeko 5etatik 7etara deitu, ostegunetan izan ezik.

☐ Gaixoak, edadekoak eta haurrak zaintzeko prest nago asteburuetan. Erizaina eta esperientziaduna naiz. 65 34 69. Nerea.

Salerosketak:

☐ Gas gas motorra salgai, Contach 327 zm². 93. urtekoa. Telefonoa 882112. Eguerdietan deitu.

☐ Zerrarako egurra eskeintzen da. 161451 telefonoa eguerdian deitu.

☐ Trialeko Gas Gas Contach T-25 motorra salgai. 21:30etatik aurrera deitu 883629 telefonora.



GOARDIAKO FARMAZIAK

15: Atorrasagasti.

16 - 17: Jauregi.

18: Azpilikueta.

19: Jauregi.

20: Larnaga.

21: Cuesta.

22: Arriola.

23 - 24: Cuesta.



25: Urbizu.

26: Atorrasagasti.

27: Azpilikueta.

28: Jauregi.

29: Larnaga.



Aterki eta poltsak, bidaietako artikuluak, konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

San Inazio, 2 BEASAIN ☎ 16 09 65

Errementari, 5 TOLOSA ☎ 67 41 43

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN



Asier Imaz
HB-ko militantea

“Egunen batean independentzia aldarrikapenik baldin bada ere prestatuak egoteaz aparte, zalantzak dituenari, ejerzitoak nola jokatu duen adieraztea izan dute helburua”

Euskal Herriak onartu ez eta, beraz inposatzen zaion Konstituzio Espainiarrak bere 2. artikuluan honako hau esaten du:

“La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles (...)”. Konstituzio inposatu beraren 8.1 artikuluan, honako honekin jarraitzen du: “Las Fuerzas Armadas, constituidas por el Ejército de Tierra, la Armada y el Ejército del Aire, tienen como misión garantizar la soberanía e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional”.

Urriaren 21etik 26ra Hego Euskal Herrian (Goierriko eskualdean barne) izan diren maniobra militarrek direla eta, badugu guztiok ere zer pentsatua eta neurri berean zer eginga ere.

Asteartean guztiok egunkarrietan irakurri genuen, espainiar ejertzitoko Jauskari Brigadaren maniobra zirela egiteko aste guztian zehar Hego Euskal Herrian. Aukeraturiko lekuak ez ziren kasualitatezkoak. Gipuzkoan, Tolosaldea, Goierri eta Leintz. Bizkaian, Durangaldea, Araban Laudio eta Gasteiz, eta azkenik Nafarroan Etxarri Aranzatz eta bere inguruneke mendiak. Argi ikusten dena da, Hego Euskal Herriaren bizkarrezurra osatzen duten herri eta eskualde hauek aukeratuak izanaren arrazoia guztiz politikoak direla. Egunen batean independentzia aldarrikapenik baldin bada ere prestatuak egoteaz aparte, zalantzak dituenari, ejerzitoak nola jokatu duen adieraztea izan dute helburua.

Herritarrek harridura eta amorruz ikusi zuen, nola mendi-tatik espainiar ejertzitoko indarrak jeisten ziren (armatuak eta gerlarako prestatuak) herriak “hartu” eta beraien indarra erakustera. Inori ezer galdetu gabe, nahi dutena besterik ez dute

Maniobrak direla eta...

egin. Orokorrean izua eta inpotentzia sentiarazi dute herritar gazte eta ez hain gazteen artean.

Euskal Herriak duen askatasun maila agerian gelditu da berri ere. Instituzionalki herri zatitu bat izatez aparte, bertako udalek eta gainerako instituzioek zenbaiterainoko gaitasuna daukaten ondo ikusi dugu: Udal-erri batek ahobatez onaturiko erabaki batek baino, ejerzito espainiarreko ofizialtxar batek askoz ere aginpide handiagoa dauka. Oso esanguratsua da, Etxarriko Udalaren kexa formal baten aurrean, UPN-PP ko Nafar politikari batek esan zuena: “El ejército hace lo que quiere en España”.

Ikusi nahi duenarentzat, begien aurrean daukagu herri honetako biolentziaren arrazoiak: Estatu batek, nazio txiki bat indarrez zanpatzen du, eta guzti hau, demokraziaren izenean.

Euskal Herriak historian zehar eta aspalditik esan du, ez duela ezer ere jakin nahi espainiar eta frantziar ejerzitoekin, eta jarrera intsumitua dela gure ildoak. Espainiar eta frantziar ejerzitoak profesionalak edo erreentplazokoak izan behar dutenaren eztabaida faltsua da Euskal Herriarentzat, nahiz PNVk adibidez, espainiar ejerzito profesional baten aldeko apostua eginga duen aspaldidantik. Era batekoak izan edo bestelakoak izan, gure herriaren eskubideak zanpatzea da daukaten zeregina, eta guri berdin zaigu, tirokatu eta torturatzen gaituzten soldaduek, soldata kobratzen duten edo ez.

Badugu gainera Goierri, espainiar ejerzito profesionalizatuaren koartel bat: Ordiziako Goardia Zibilarena. Ejerzito es-

painiarraren parte berezi bat da Goardia Zibila, eta iraunkorki gure artean egoteaz aparte, maiz egiten ditu “maniobrak”, Goierri eta Hego Euskal Herri guztian. Zenbaitentzat hain baliagarria den Gernikako Estatutoak berak ematen dio eskubidea gorputz militar siniestro honi, “espainiar batasuna defendatzeko”. Asko dakite PNV eta EAK gai honi buruz. Guztiok dakigu, kontrolak, mehatxuak eta torturak sistematikoki egiteaz aparte goierriar asko erahil dituela Goardia Zibilak bere historian zehar. Halere PNVk, beste aldeira begiratu izan du beti Goardia Zibilaren mugimendu hauen aurrean (Ormaiztegiko beraien alkate ohia egurtu zutenean izan zen salbuespen bakarra), eta orpo orpo lan egiten dute beraiekin Euskal independentisten aurka. Ez da denbora asko, Ordiziako alkateak berak Goardia Zibilaren alde hitz egin zuela.

Azken egun hauetan ere, nahiz eta maniobra militarren aurkako aldarrikapena egin, Herri Batasunak ejerzitoari kanpora alde egiteko esanaz Beasainen aurkezturiko mozioa adibidez atzera bota zuen PNVk. Bitatean, Ertzaintzak ejerzittoa babestu zuen Salburuako zelaietan (kasualitatea ote?), intsumiso “biolentoen” hatzaparretatik. Ardanzak bestalde, Euskal Herriaren borondatearen aurka (ikusi erreferendumeko datuak) OTANen egitura militarrean osoki indarrez sartu gaitzatena- ren alde dagoela esan berri digu. Guzti honi Josu Jon Imaz, PNVko eurodiputatuak ARGian eginiko adierazpen batzuk gehitzen baldin badizkiogu, zeinetan esaten zuen, Euskal Herria ez dutela kanpoko indarrek zapaldu, baizik eta gure arteko liskarrek, dena esanda gelditzen da.

Ezker Abertzalean herriaren etsaia non dagoen argi daukagu, eta honen aurrean ez gara makurtuko, ez eta amore emango ere.

ERREZETA



Julio Rivas
Ostatu jatetxea
Zegama

USAKUMEAK FOIE ERARA ARANPASEKIN

Osagaiak: Usakumeak, aranpasak, foie, tipula, errezil sagarra, baratzuriak, azenarioak, porruak, ardo beltza eta haragi salda.

Usakumea frijitu aran-pasa eta foiearekin beteta. Gorritzen denean atera.

Ontzi batean azenarioa, tipula, errezil sagarra, baratzuria eta 2 porru jarri. Gorritzen utzi. Ondoren usakumeak sartu barazkitan, ardo beltza eta haragi saldarekin batera. Usakumeak egin arte eduki. Atera eta saltsa pasatu.



Iñaki Erauskin

Sasieta Mankomunitatea

Gaur egun, zabortegitik zaborrak desbideratzeko 3 aukera daude:

a) Sortzen dugun zaborra gutxitzea.

b) Produktu berbera behin baino gehiagotan berrerrabiltzea.

d) Produktu berriak fabrikatzeko material berziklagarriak berziklatzea.

Oraindaino ezer gutxi egin da beti ahotan darabilgun zabor gutxitze horren inguruan. Hona hemen zaborrak gutxitzeko zenbait gomendio.

Supermerkatura erosketak egitera joaten garenean sortuko zaizkigu zaborrak gutxitzeko lehen aukerak:

● Bi produktu antzekoak badira (kalitatea eta prezioa-

AHOLKUA

Zaborrik onena: sortzen ez dena

ri dagokionean), aukera eza-zu bietan ontzi edo enbalai gutxien duena.

● Gehiegi paketatutako produktuak (ontzi asko eta eduki gutxi) baztertu.

● Erosketak egitera joaten zarenean eraman ezazu etxetik lonazko edo sareko poltsa. Plastikozko poltsak ere berrerrabiltzakezu.

● Neurri txikiko produktuak erosten badituzu (aspirina kaxa, argazki pelikula...) esan dendariari erosi duzun hori paperean ez biltzeko eta plastikozko poltsa batean ez sartzeko. Ez dago zertan gauza bera bi aldiz paketatu beharrik.

● Etxetik poltsa eramatea ahaztu bazaizu eta bi edo hiru gauza besterik ez badituzu erosi, orduan, dendariak eskainitako poltsa ez onartu eta gorde erositakoak poltsikoan edota bestela eraman eskuan.

● Zelofanez estalitako poliespanezko erretiluetan saltzen duten fruta, haragixerrak, oilasko iztarrak, txerrikiak e.a. ez erosi. Burdingietan saltzen dituzten il-

tzeak, erramintak e.a. sueltotan ere egoten dira.

● Etxean maiz erabili ohi dituzun produktuak erostera-koan (dutxako gela, ilea garbitzeko txanpua...) erabilera indibidualeko ontzi txikiak baztertu eta artikulua handiagoak (familiarrak) erosi. Ontzi hauek, proportzioan, produktu unitate bakoitzeko ontzi gutxiago eduki ohi dute. Elikagaien kasuan, ahalik eta tamainarik handiena aukera baina, beti ere, kaduzitate-data kontutan izanik.

● 'Ecopak' izeneko ontzietan saltzen dituzten produktu konzentratuak (jaboiak, leungarriak...) toki gutxiago hartzen dute, ez daude hain paketatutak eta energia gutxiago behar izaten dute garraiatzerakoan eta horren ondorioz, hondakinak gutxitu, dirua aurreztu eta errekurso naturalak ez dituzte urruputzen.

● Produktu gehienetan hizki txikietan azaltzen diren erabilerarako instrukzioak ongi irakurri eta jarraitu; eta edukia ongi probetxatu.

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabea
Larraitz bidea



GAINTZA

☎ 88 98 48



Proba itzazu
"Beasaingo Mar-
tintxoak"

Nagusia, 11
☎ 88 82 37
BEASAIN



Etxegarate

Etxegarate mendatea hizpide dugu egunotan. Jose Julian Irizar diputatuak sortu du eztabaida, Etxegarate 4 urteren buruan bikoiztu nahi bada, kapital pribatua eta beraz, peaje jarri beharko dela adierazi zuenean. Bide hau hartu ezean datozen 5 urtetan Etxegarateren bikoizketa luzatu egingo litzateke. Ordaindu beharreko bidesaria "biguna" izango omen litzateke. Bi aukera horiek jarri ditu mahai gainean Irizarrek eta eztabaida sortu du. Joan zen asteazkenean egin zuten Goiekin Goierriko alkateek bilera, jarrera bateratu bat hartzeko. Dena den, EAko alkatea den Antton Irizar guztiz aurka azaldu da. Baita HB ere. EAJkoek ez dute peajearen aukera baztertu. Hurrengo alean izango duzue informazio gehiago.

Gose greba

Goierriko 15 lagun, Donostiako Artzai Onaren katedralean gose greban hasiko dira bihar, azaroaren 16an. Astebeteko greba izango da. Urte hasieratik elkarte, erakunde eta eskualde ezberdinetako hainbat lagun ari dira astero-astero gose greban. Euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzeko ekimena da. Goierritarrena 50. txanda da. Azaroaren 20an, prentsaurrekoa emango dute.

Legorreta

Igande goizaldean, etxean egindako lehergailuak ez-tanda egin zuen Legorretako Udaletxearen kanpoaldean. Kalte material txikiak eragin zituen.

Zerain

Azaroaren 3an, Diputazioaren Herrilan zerbitzuatarako bi traktoreen aurkako sabotaiak izan zen. Suhiltzaileek jakinarazi zuenez, traktoreen azpian pneumatikoak jarri, sua eman eta erre egin zituzten.

Heinz Dieterich

Heinz Dieterich idazlea Ordizian eta Beasainen izan zen urriaren 25ean, Askapenak eta Ikasle Abertzaleen eskutik. 'Elkartasun Internaziola' gaia izan zuen hizpide. Ordiziako saioa ikasleei zuzendurikoa izan zen, Barrena txiki gelditu zen. Beasaingo Txindoki Institutuko Naiara Azkona eta Ainara Aizpuruak esan zuenaren laburpena egin digute. Latino-Amerikaren arazo larriena tranazionalek ekartzen duten industri nazionaletan apurketa omen da. Coca-Colaren kasua jarri zuen. Latino-Amerikak bere herrian edaten zen fruitu zukua produzitzen zuen, baina Estatu Batuetako produktua sartu zenean, herritarrek, merkeagoa zela ikustean, Coca-Cola edateari ekin zioten. Honek, bertako industri ugari ixtea ekarri zuen, populazioaren langabezia sorraraziz. 0,7 famatuaz ere hitz egin zuten. Hirugarren Munduari bidaltzeko diru kopurua da hori. "Nola lortuko genuke 0,7-a? Erantzuna, langileen poltsikoe-tan dago. Honekin adierazi nahi duguna zera da, langile orori beraien soldateta-

tik kenduko litzaikeen diru kopuru eskasa. Hau guztia kontutan hartuta, herri garatuen jokaera kontraesan batekin topatzen gara; alde batetik beraien barne industriaren suntsipena eragin dugu geure gaiak inposatzean; beste alde batetik, berriz, dirua bidali nahi diegu geure jokaera maltzuraren aurrean estalki bat ezartzeko asmoarekin".

Askapena taldeak bere aldetik, zera salatu du. "Heinz Dieterichek Ordiziako zinean eman beharreko hitzaldia Barrenan egin behar izan zen. Ez dakigu oraindik zer arrazoiengatik Udalak ez zuen suposatutako gastua bere gain hartu (25.000 pezeta gehi zineman lana egiten duen pertsonaren soldata), ez baitugu honen inguruko ofizialik jaso. Guretzat ulertezina da Udalak neurri batean gestionatzen duen areto bat erabili ahal izateko, lekurik gabeko erakundeek alokairu bat ordaindu beharra. Ezezaguna da ere guretzat, zer irizpideen arabera ematen diren dirulaguntzak ekin-tza batzuentzat, beste batzuen kaltetan".

Pili Iturbe

Tolosako Babarrun lehiaketan, Pili Iturbe beasaindarrak prestatu zituen ondoen

babarrunak. Arrano Kultur elkartearen izenean aurkeztu zen. Bigarren sailkatua Legorretako Jose Lorenzo Soroiz izan zen.

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

V. Pintura lehiaketa

Beasaingo Aterpe Tabernak V. Pintura lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu. Artista bakoitzak lan bakarra aurkezteko aukera izango du. Teknika eta gaia, libreak. Artelanaren neurriak handienak 1 m x 1 m izango dira. Artelanak sinatu gabe egon behar du eta abenduaren 10a baino lehenago aurkeztu behar da Aterpe Tabernan bertan (Ezkiaga Etorbidea, 3). Sariak: irabazleak Aterpe Tabernaren logotipoa brontzezko eskultura moduan jasoko du. Aurkeztzen diren guztien erakusketa abenduaren 14tik aurrera Aterpe Tabernan bertan izango da. "

Orixen lehiaketa

IX. Orixen Bertso Paper lehiaketan goierritarak izan dira protagonista. 15 urte bitartekoetan, Izar Sarriegi beasaindarrak irabazi du 'Zuekin baina bakarrik' bertso sortarekin. 15-21 urte bitartekoetan, saria bien artean banatu da: Arkaitz Estiballes eta Aitor Sarriegi beasaindarraren artean. 'Ikusi arte' bertso sorta, oraindik orain istripuz hil den lagun bati eskainiak dira bertsoak. Helduetan, Rufino Iraola zaldibitarak irabazi du. 'Behi pintoa' bertsoetan, gaztetan etxean ezaguturiko behi baten historia kontatzen du.

Bartolo Aierbe

'Zaarrak berrituz' izeneko liburua kaleratu berri du Bartolo Aierbe gaintzarrak. 90 urte ditu Aierbek eta bere bigarren liburua da. Txikitatik ikusitako ohitura zahar eta ekintzak kontatzen ditu batetik eta bestetik, garai haietan baserrietan egiten ziren lanak bildu ditu. Gaintzako Udalak emandako diru-laguntzarekin argitaratu da liburua. Orain dela 8 urte 'Nere mundualdia' kaleratu zuen.

Bach Musikaldia

Ataunen hasi zen Gipuzkoako Diputazioak antolatutako Bach musikaldia. San Martingo elizan dagoen organo eraberritu era horretan inauguratu zuten, San Martin egunez.

Edorta Diaz

Lumaren bidez idatzitako kaligrafiarik txukunena nork duen erabakitze txapelketa burutu berri da eta 13-17 urte bitartekoen sailean, Edorta Diaz beasaindarrak bigarren sari jaso du. Oso gutxitan erabiltzen omen du luma Edortak. Duela hilabete gutxi batzuk hasi zen eskolako lanak egiteko.

Garijo

Luis Migel Garijo beasaindarrak irabazi zuen Ataungo Hiru azoetako korrikaldia. 59'20"-ko denbora behar izan zuen ibilbidea osatzeko, baina ez zuen marka-

rik gainditu. Bigarren Pello Garmendia ordiziarra izan zen eta hirugarren Martin Irizar beasaindarrak. Lehen emakumezkoa M. Karmen Garcia izan zen. Guztira 120 korrikalarik hartu zuten parte.

Aizkolarik

Euskal Herriko 3. mailako aizkolari txapelketako finalerako txartela bi goierritarrek eskuratu zuten, azaroaren lehen, Zaldibian bertan egin zen kanporaketan. Iñaki Azurmendi arriarandarrak bigarren postua eskuratu zuen, 9'18"-ko denborarekin. Iñaki Aierbe ataundarra hirugarren izan zen, 9'23"-ko denborarekin.



Beste bi partaideak, Axier Mujika olaberritarra eta azken momentuan izena eman zuen Mikel Jauregi 'Altzo' zaldibitarra finalerako kanporaketatik kanpo gelditu ziren. Guztira 24 aizkolarik hartu zuten parte. Finala Zaldibian jokatu da hilaren 24an.



Telleriatarak

Igandean, azaroak 17, lehenengo abizena Telleria dutenen bazkaria egingo da. Bosgarren aldia da aurtengoa. Lierni-ko Patxi erretegiak izango da bazkaria, baina aurretik 12:30etan meza izango da. Bazkalondoren, Segura eta Idiazabalgo txistulariak eta Gaintzako trikitilarik izango dira giroa alaitzen. Guztiak ere Telleriak dira. Argazkian, iaz omendu zituzten Maximiano idiazabaldarra eta Maria zegamarra ditugu. Urtero, 2 Telleriatar zaharrenak omentzen dira.



DEKORAZIOA

- ✓ Lanparak
- ✓ Lore lehorrak
- ✓ Opariak

Ireki berria!

Urdaneta, 25

ORDIZIA

B E L E N

JOSTAILU DENDA

- ✓ Jostailuak
- ✓ Joku didaktikoak
- ✓ Pelutxeak

Urdaneta, 24

ORDIZIA

'Kaixo ura' erakusketa

Ordizia bisitatu ondoren, Beasainen izango dugu azaroaren 19tik 22ra 'Kaixo ura' erakusketa ibiltaria. Gipuzkoako ibaien Saneamendu-planaren eta finantziazio-kanonaren berri ematea, eta uraren zentzuzko erabilera eta aurreztearen kultura sortzea dira erakusketaren helburuak. Oria ibaia saneatzeko planaren berri eman digu Gipuzkoko Ur Kontsorzioak.

Gure ibaiek lehen zuten bizitza izan dezaten berriro, gure etxe eta industrietan erabiltzen dugun ura garbitu eta araztu egin behar da berriro, ibaira isuri aurretik. Araztegia behar da horretarako, eta Goierriri dagokionean, oraindik egiteko dago.

Oria ibaiaren Saneamendu-plana, hau da, Alzaga, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura eta Zaldibiako ur zikinak garbitzeko araztegia edo depuradora Legorretan kokatuko da. Datozen 4 urteetarako plana da eta 4.000 milioiko aurrekontua du. Gipuzkoa osoan



Ordiziako ikasleek erakusketa ikusteko aukera izan dute.

zehar egingo diren inbertsioak, berriz, 40.000 milioitiko gorakoak dira.

Dena den, aurretik herri bakoitzak bere kolektorea egin beharko du. Zegamak eginga dauka dagoeneko; Segura eta Idiazabalek bukatzeaz dute; Lazkao zati bat eginga dago; eta besteek datorren urtean egin beharko dute. Araztegiaren lanak atzeratu egingo dira.

Zenbat ur kontsumitzen dugu egunean?

Ormaiztegi: 119 litro biztanleko.

Segura: 120 litro.

Idiazabal: 109 litro.

Beasain: 142 litro.

Ordizia: 135 litro.

Lazkao: 116 litro.

Ataun: 118 litro.

Ezkio-Itsaso: 81 litro.

Legorreta: 107 litro.

Olaberria: 182 litro.

Zegama: 123 litro.

Uraren kultura berria

'Kaixo ura' erakusketaren helburuetariko bat, uraren kultura berria sortzea da. Hau da, ura aurrezte eta bere arazoizko erabilera. Ur asko gastatzen da, goiko datuek adierazten duten bezala. Gauzak honela, hauek dira Ur Kontsorzioak emandako aholkuak:

Nola aurrez dezakegu ura?

- Dutxa hartu bainuaren orde. 3 minututako dutxa 30 litro ur erabiltzen dira. Bainuan 130 litro.
- Hortzak garbitzerakoan edota dutxa xaboia ematerakoan iturriak itxi. Egoera hauetan, 5 litro aurrez ditzakegu lehen kasuan eta 10 bigarrenetan. Zaindu galerak eta tantaka uzteak. Segunduko tanta bat egunean 30 litro dira.
- Iturrietan difusore-ekonomizatzaileak jar itzazu etxean.

● Elektrotresnaren bat (garbigailua, ontzi-garbigailua) erostekotan bazabiltza, zernolako ur-kontsumoa duten galde ezazue. Batzuk besteak baino gutxiago gastatzen dutela jabetuko zara.

● Komuna ez da zaborrontzia. Komun berriak jarri behar badituzu, ur-educiera txikienekoek galde ezazue. Erabileraren arabera tiragailu desberdinak dituztenak ere badira. Jarrita daudenetan urez betetako botila bat sar dezakezu, kapazitatea txikiagotzeko.

● Udan, ura edan aurretik ez utzi iturria dariola. Hozkailuan izan ezazu bete pitxarkada bat ur.

Nola erabil dezakegu arazoiz ura?

Ura ez kutsatzeko eta arazoiz erabiltzeko egin dezakeguna:

- Kotxea leku aproposetan garbi ezazu eta ez bota kotxe-olio tantarik uretara.
- Komuna ez erabili zabortegia balitz bezala.
- Produktu ekologikoak erabili.
- Ez bota botoi-pilak. Botoi-pila batek 2 gramo bakarrik pisatzen ditu, baina merkurioa duenez, 600.000 litro ur kutsa ditzake.

Ander Mujika

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzale ofiziala

16 07 85

lurre Auzoa

OLABERRIA

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredolak
Mantak - Malindreak - Mahal oihalak
Toallak - Gortinak eta osagalak

M. Zeberio

88 00 84

J. M. Barandiaran Plaza

ORDIZIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Orain CLINIQUE produktuak


San Inazio, 14 8893 90 BEASAIN

ENPRESA EKIMEN BERRIAK ETA AUTOENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA: Iker Galparsoro: "Autoenpleguaren bidetik, lanpostuak sortu eta ideiak dituen jendea lagundu nahi dugu"

Goieki, Goierri eskualdeko garapen agentziak, aurtur bigarren aldiz, 'Enpresa-ekimen berriak eta autoenplegua bultzatzeko programa' jarriko du martxan azaroaren 25etik aurrera. Autoenpleguaren bidetik, negozio edo enpresa bat sortzen laguntzea du helburu. Guztia dohainik. Iaz 15 proiektu aurkeztu ziren eta 6 martxan dira jadanik. Hori bai, ikastaroan parte hartzeko bi baldintza behar dira Iker Galparsoro arduradunaren esanetan: "ideia bat edukitzea eta ideia horren kokalekua Goierri izatea". Izena emateko epea azaroaren 18ra arte dago zabalik.

G.- Zertan datza programa?

E.- Negozio edo enpresa bat sortzeko ideia duen edonori zuzendua dago programa hau. Askotan ez dute jakiten ideia hori nola hasi lantzen, ez dakite nora jo. Enpresa bat sortzeko behar den oinarritzko heziketa teoriko bat eman eta buruan dauzkan ideiak paperean jartzen laguntzen dugu. Ideia aztertu lehenengo, promotoreak aztertzen dira gero, ondoren zer proiektu edo zer eskaini nahi duten, gero merkatua, hornitzaileak, eta azkenik zenbakiak inbertsio eta finantziario aldetik. Beraiek proiektua landu eta gero, bideragarritasun plana egiten da.



Iker Galparsoro (ezkerrean) da 'Enpresa ekimen berriak eta autoenplegua sustatzeko' proposamenaren arduraduna.

Proiektu hori aurrera ateratzea posible den edo ez esango digu. Posible bada, pertsona horri lagunduko genioke tramite guztiak egiten. Inkubategia dago guzti horretarako. Ordenagailua, telefonoa, faxa... proiektua lantzeko baliabideak hementxe daude.

G.- Programaren helburua zein da?

E.- Lanpostuak sortzea eta ideiak dituen jendea laguntzea, autoenpleguaren bidetik. Askotan autoenplegua da gelditzen den aukera bakarra. Bultzada bat behar izaten da eta gu saiatzen gara bultzada hori ematen, jendea motibatzen.

G.- Autoenplegua da lanpostuak sortzeko alternatiba nagusia?

6 proiektu martxan

Iaz hasi ziren enpresa 'Ekimen berriak eta autoenplegua sustatzeko programa'ekin. 15 proiektu aurkeztu ziren. Horiatarik 6 martxan daude eta 2 kolokan, Iker Galparsorok jakinarazi digunez. Aurtur ere beste 15en bat proiektu aurkeztea espero da. Martxan dauden proiektuak hauek dira:

Ezin elkarteak: 3. adinekoei laguntza ematen dien enpresa. Beasaingo Udalarekin harremanetan daude. 14-15 bat lanpostu sortuko lirateke.

Confeciones Lazkao: 4 jostunek tailer bat hartu dute. Momentuz oso ondo doaz.

Biblioteconomia eta dokumentazioa enpresa bat, liburutegiak, artxiboak... informatikoki antolatzen duen enpresa.

Ataungo igeltsero batek eraikuntzan lanean ibili eta bere kontu, beste batekin igeltseritza enpresa sortu du.

Ordizian frutadenda bat ireki du emakume batek.

E.- Jendea beldurtu egiten da enpresa bat sortzen, orduan motibatu egin behar da. Normalean ilusioarekin etortzen den jendea aurrera ateratzen da.

G.- Goieki turismoa bultzatzen ari da. Inkubategi honekin loturarik ba al du?

E.- Oraintxe eskualdeko gida turistikoentzako ikastaro bat egiten ari da Goieki, 12 lagunekin. 6 hilabeteko heziketa programan sartuta daude eta gero beste 6 hilabeteko kontratua egingo zaie 8 lagunei. Inkubategira etortzeko aukera emango zaie, proiektua aurkeztu eta aurrera ateratzeko, beti ere turismoa eta kultura lotuta. Hortik enpresa bat ateratzea izango litzateke gure asmoa.

G.- Zer behar da enpresa bat sortzeko?

E.- Gogoia eta bakoitzak bere proiektuan sinistea oso garrantzitsua dira. Gero guk laguntzen diegu bidetik harriak kentzen, bidea errazten. Portzentaia handi batean jendea gogoarekin etortzen da. Subentzioak lortzen saiatzen gara. Fondo Social Europeotik diru-laguntza daukagu. Enpresa sortzeko momentuan INE-Mek autoenplegurako dituen laguntzak eta Jaurlaritzako laguntzak. Askotan gehiago behar izaten dira eta beste bide batzuk jorratzen dira: maileguak... Subentzioak asko ez daude baina daudenak lortzen saiatzen gara.


Loinaz Agirre

PELLO IRIZAR BEASAINDAR MUSIKARI ETA KONPOSATZAILEA: "Nahiz eta ni joan, nire musika jotzea, bizirik irauten da nire ametsa"

Pello Irizar beasaindar musikari eta konposatzailea elkarriketatu dugu oraingo honetan. "Niretzat inportanteena ez da egindakoa, bukatutako lana historia izaten da. Niretzat garrantzitsua egingo dudana izaten da" esanez hasi zen berriketan. 38 urte ditu eta bera gogoratzen denez, 3 urterekin hasi zen musikaren lehen oinarriak jasotzen.

Musika historial luzekoa da Pello Irizar. Musikari lotutako familiako semea. Aita Loinatz abesbatzako zuzendaria izan zen. Ama, 3 izeba, 2 osaba Loinatz abesbatzaz gain, Donostiako abesbatzetan ibiliak. "Gogoratzen naiz, 3 urterekin, aitak Beethoven jarri eta zein instrumentu sartzen zen galdetzen zidala. Instrumentuen doinua bereizten aitarekin ikasi nuen. Nolakoak ziren ez nekien, baina beraien doinua ondo ezagutzen nuen".

5 urterekin Ramon 'Txanbo'-rekin solfeoa eta txistua ikasten hasi zen. 6



Musika tradizio handia duen familiako semea da Pello. Musika konposatzeaz gain, txistua, pianoa, dultzaina, perkusioa eta bonbardinoa jotzen ditu besteak beste.

urterekin herriko txistulari taldearekin diana jotzen-eta ibiltzen zen. 10 urterekin pianoa eta solfeoa ikasten hasi zen, Maria Dolores Agirrerekin. 16 urterekin Donostiako Kontserbatorioan piano ikasketei serio heldu zien. Armonia, akonpañamendua... egin zituen. 20 urterekin Beasainen 'Burbuil' berbena taldea sortu zuten Pedro Luis Uranga eta biek. Bateria Jose Migel Gonzalez zen, bajuan Patxi Atxa eta Ruben Arbizu izan ziren. "Ez zen ondoegi joan. Proiektua ekipoa lortu eta ordaintzea zen. Berbenak berdinak dira eta musika errealizatzeko ez da modurik aproposena, beti bes-teen bertsioa egiten ari

baizara", esan digu. 'Mandaeuli' taldea banatu zenean, Amaia Kasasolarekin aritu zen hilabete batzutan.

Koskola txaranga

Oroitzapen bereziarekin gogoratzen du Koskola txarangako garaiak. "Martin anaia hasi zen osatzen eta taldea nahiko osaturik zeukaten, baina bonbardinoa joko zuen norbait falta zitzaien. Neri eskatu zidan jotzeko. 'Bonbardino bat lortuz gero, nik ikasiko dut' esan zidan. Hurrengo asterako bonbardinoa lortu eta ikasi beharra izan nuen. Oso gustora ibili naiz. Txarangak publikoarekin harreman zuzena, gertukoa du. Lanaren ondorioa mo-

mentuan bertan ikusten da. Dokumental bati musika jarritz gero, ez dakizu jendearen aurrean nolako harrera izango duen".

Hori bai, beti eman izan ditu musikako klaseak. Soldadutzan ere Donostian klaseak ematen zituen. Jakina, soldadutzan, bandako perkusionista izan zen. Klaseak emateari utzi zion, ETB-rako lanak egiten hasi zenean. Sintoniak eta hots bereziak sartzen aritu zen. Sin permiso, Egonean giro, Hor Konpon... programetarako musikak jarri zituzten besteak beste.

Bi talde

Momentu honetan bi taldeekin jotzen du Pellok: Benito Lertxundirekin eta Fran Lasuenekin. "Martinen heriotza gertatu zen 1989an. Benito Lertxundi pianistarik gabe geratu zen. Hilabete batzuetarako sartu nintzen Benito berak eskatuta, baina 6 urte daramazkit. Asko ikasi dut berarekin. Gauzak nola nahi dituen ondo daki", aitortu du. Fran Lasuen, Oskorriko biolin jole ohiarekin, ere lanean ari da. Lasuenek biolina jotzen du, Pellok pianoa, Luis Kaminok perkusionista (21 Japonesen ibilitako),

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN



Martin Irizar anai zenari 'Uera' abestia eskaini dio Pellok, Benito Lertxundiren azken diskoan.

Alex Zabalak kontrabajua, Jose Mari Gonzalezek klarinetea, Ana Sonmarkuziok ahotsa eta kitarra jotzen du. Durangorako konpaktoa kaleratuko dute.

Beti besteentzako jotzen du. Hala ere, "nahiko nereak dira. Nahiz eta beste izenetan jo, nereak sentitzen ditut. Oso proposamen ezberdinak dira. Benitoren elektronikoa eta akustikoa biak nahastuak da; eta beste akustikoa". Gainera, "besteentzako lana egiteak, zurea ateratzeko gogo gehiago ematen du, bultzatu egiten du", gaineratu du.

Proiektu propioak

Datozen urteetarako, ordea, badu beasaindarrak proiektu propioak. Bere musika bilduko duen lana kaleratu nahi du. Batetik, bere musika sinfonikoa edo 'new age'; eta bestetik Pello Ramirez txelo ordiziarrekin batera, eta piano lana.

Musikari bezala zein amets dituen galdetzean zera erantzun digu. "14 urterekin esaten nuen arreglista eta konposatzailea izan nahi nuela. Hori orain arte lortu dut. Eta produktore 'bitola' hori lortzen ari naiz. 'Bitola' ez karneta bakarrik edukitzeko, lan gehiago egiteko aukera edukitzeko baizik. Musika mailako ametsa, nire musikaren iraupena da. Nahiz eta ni hil, nire musika jotzea, bizirik irautea. Nire obratxo bat instrumentuak ikasteko partitura bezala erabiliz gero, munduko pertsonarik zoriontsuena izango nintzateke", aitortu du.

Lagin grabazio estudioa ere badauka Pellok, Beasainen bertan. "Militantzia" omen da estudioarena. Goierrik eta goierritarrek honelako estudio bat gertuan izatea beharrezkoa ikusten du Pellok. Txiki xamarra denez, handitzeko

Benito Lertxundi Ordizian

Azaroaren 16an, Ordiziako Majori Kiroldegian, gaueko 10.00etan, Benito Lertxundiren kontzertua izango da, Senideak elkarteak antolatuta, 'Euskal presoak Euskal Herrira' lelopean. Disko berria aurkeztuko du. Benito Lertxundik, 89tik hona diskorik kaleratu gabe egon ondoren, Martin Irizar, Pelloren anai zenaren omenezko lana kaleratu du. 'Hitaz oroit' izeneko. Benitok 'Udazken koloretan' kantua eskaini dio Martini. Pellok, berriz, 'Uera' izeneko. "Uera kostaldean esan nahi du, itsasontzi bat joaten denean, uzten duena. Pertsona bat joatean uzten duen arrastoa azpimarratu nahi izan dut".

Pelloren esanetan, azken disko hau nahiko berria da. "Blues-a egitera ausartzen da Benito, nahiko blues berezia, eta estetikaren aldetik zenbait inkorporazio dauka, nahiko herritua dago moldaketetan. Abesteko era ere zerbait aldatu du, 'karraspeoan' hasita dago, nahita. Ausartagoa da. Benitoren ekintzan beste etapa bat da diskoa".

Ordiziako kontzertuan abesti berriak eta zaharrak tartekaturiko dituzte. "Proposamen ezezaguna da, jendeak diskorik ez baitu entzun. Nola hartuko duten ez dakigu. Diskoko zenbait abesti hiruzpalau urte daramagu jotzen. Prozesu ona da hori, lehenbizi kontzertuetan eskaini, landu eta gero diskoratu. Lanak heldu egiten dira sistema honekin".

Kontzertu asko dituzte agendan abendura bitartean. Madrilan ere izango dira. "Kanpoan euskal musika oso ondo hartzen dute. Hemen kanpokoak hartzen ditugun neurrian gutxienez bai. Hasieran errespetuarekin hartzen, eta gero erreakzio ona ikusten daFolka oso ondo hartzen da. Modan daude, bai Japonian eta bai Estatu Batuetan. Europako folka ondo ari da hartzen".

proiektua ere buruan dabil. Momentu honetan, pelikula baterako sintonia grabatzen ari da Pascal Gaigne musikaria.

Musika egiten

Hainbeste lan egin eta egiten dituen, non sentitzen den gustoen galdetu diogu. Erantzuna garbia izan da:

musika egiten. "Bai estudioan grabatzen, bai konposatzen, bai jotzen... Konposatzea da lanik gogorretarikoa. 13 asteetan, egunero ordu erdiko dokumental baterako musika egin behar izan nuen. Oso angustioso da".

Loinaz Agirre



- Mediku akupuntorea
- Pisuaaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11
ORDIZIA

Erakusketa
Sukaldeko tresnak



Mariaratz, 4
Tfnoa.: 88 86 84

BEASAIN

BASERRITARRAREN EGUNA ZEGAMAN AZAROAREN 16an:

Zegamako ganadua lehian

San Martin egunaren hurrengo larunbatean ospatzen da Zegaman Baserritarren eguna edo San Martingo azoka. Egun berezi hau noiztik ospatzen inortxok ere ez daki, inguruetan egiten diren azokak baino zaharragoa omen da. Gerra Zibilak eraman zuen azoka eta 1977. urterarte egin gabe egon ziren.

Urte hartan Zegamako alkate eta diputatu zen Joxe Telleriak lortu zuen garai bateko San Martingo azokaren lehen urratsak ematea. "Nere kapritxo bat izan zen. Nik aitonari beti entzun izan nion San Martin azoka oso garrantzitsua izaten zela Zegaman. Etxeak, lurrak... utzi egiten ziren, gaur egun errentan bezala. San Martin egunez, oilo, koneju, txahal edo abarrekin ordaindu egiten zen urteko zorra. 1976an Oñatin egin zen Gipuzkoako ganadu azoka eta

non egin erabakitzen ari zirela, zergatik ez Zegaman bota nuen. Orduan, 1977an Gipuzkoa mailako ganadu lehiaketa egin zen Zegaman. Oso egokia izan zen San Martingo azoka egiten hasteko Gipuzkoa mailako lehiaketa batekin hastea", adierazi digu Joxe Telleriak.

Dena den, gaur egun herri mailako azoka izaten da. Herriko ganadurik onena lehian izaten da. Behi, behor eta ardiak. Segundo Oiarbide zinegotziak jakitera eman digunez, 28 behi, 23 behor eta 12 ardi talde



aurkeztuko dira lehiaketara. Dena den, bestelako animaliak ere jar daitezke erakusgai. "Interes piska bat jartzen du baserritarrek, trofeotxo bat jaso eta poza ematen baitu. Herri mailako lehiaketa izateko nahiko ganadu ona elkartzen da", adierazi digu Oiarbidek.

Sariak hauexek izango dira: behietan, batek irabazten badu 17.000, bi badira 27.000, hiru badira 39.000 eta lau

baldin badira 47.000. Behorretan, batek 11.500, 2k 19.000, 3k 26.000. Sari banaketa eguerdiko 1.30etan egingo da. Epaimahaia kanpokoek osatuko dute, sor daitekeen edozein susmo baztertzeagatik. Behiak Diputazioko albaitari bat eta Rodrigok aztertuko dituzte; behorrek Arantzazuko Goiko Bentako nagusiak.

Ganadua ekartzeagatik diru kopuru bat emango zaio baserritarri, baita Zegamako Kontzejun bazkaldu edo afaltzeko txartela ere. Papertegi zaharrean



Joxe Telleria alkate zenean berreskuratu zen gerra garaian galdutako San Martingo azoka.

TXANTON
t a b e r n a

Egun ona pasa!

Santa Barbara, 2 ☎ 80 11 45

ZEGAMA

EUGENIO ORMAZABAL
JANARIDENDA



EDURNE DROGERIA

Egun ona opa dizuegu!

☎ 80 11 40 **ZEGAMA**

BENITO



Harategia
Urdaitegia

S. Barbara, 8 ☎ 80 02 05

ZEGAMA

AITZKORPE
TABERNA

Egun ona para dezazuela opa dizuegu!

S. Martin, 15 ☎ 80 1162

ZEGAMA

MANOLO
Edaritegia



Pintxoetan aukera haundia!

☎ 80 12 36

ZEGAMA

izango dira ganaduak ikusgai.

Azken batean, Oiarbidek laburbildu digunez, baserritar eta kaletarren eguna izaten da. Oso herrikoia izaten omen da eta herritar ugari biltzen duen eguna.

Herriko plazan eta Udaletxeko arkupetan, barazki, landare eta fruitu, eta artisau erakusketak izango dira. Artisaugileek haria, silak, artilezko galtzerdiak, ontziak, eskuarak, taloak nola egiten diren erakutsiko dute. Egurra nola lantzen edo tailatzen den erakusgai izango da.

Aurten lehenengo aldiz, sagardo dastaketa egingo da San Martingo azokan. "San Bartolometan ere egin zen eta jendea gustora gelditu zenez, aurten San Martin egunez egitea erabaki da", dio Oiarbidek. Arratsaldeko 7.00etan izango da. Eta gauean, egunari amaiera ona emateko, trikitixa izango da. goizaldeko ordubiak arte.

Egun handia

Herriko zaharrenentzat egun sakratua izaten da, egun handia. Herriko ar-


tzainek adibidez, kontuak egiteko aprobetxatzen dute eguna. "Herriko 25 artzainek Artzain Bil elkartearen eginda daukate. Urtero diru bat jartzen dute artzainek, hainbeste ardiko hainbeste diru, urtean zehar izan edo ardiek egin ditzaiketen kalteak ordaintzeko. San Martin egunez elkartzen dira Kultur Etxean kontuak, arazoak argitzeko", adierazi digu Joxe Telleriak.

Udaletxe mailan lana egiten dutenek ere, urteroko bazkaria egiteko aprobetxatzen dute. Segura, Zerrain, Idiazabal eta Mutilloako udal ordezkariak ere gonbidatuak izaten dira, odolkiak ordainetan izaten direnez. Zegamarrak beste 4 herrietara joaten dira herriko jaietan.

Topa

Joxe Telleriak adierazi digunaren arabera, beste ohi-tura bitxi bat ere bada egun horretan Zegaman. "Kopa ezkerrarekin hartu, besoa okertu eta topa egitea. Ohitura horren arrazoiaren berri ez daki inork".

Ander Mujika



San Martin azoka

San Martin hurrengo larunbatean, (azaroak 16) urtero bezala, Baserritarren Eguna izango da herrian. Eguneko egitaraua hauxe duzue:

10:30etan: Bailarako txistulariekin kalejira.

Ondoren: Herriko abereen lehiaketa. Behiak, behorak, ardiak (5 ardi eta ahari bateko taldea), bildotsak (5 urruza eta ahari bateko taldea). Landare fruitu eta barazkien erakusketa. Eta artisau eta eskulangintza erakusketa (haria egiten, silagintza, artilezko galtzerdiak, tailaketa, ontzigitza, taloak eta eskuarak).

11:00etatik 14:30etara: Kontxi Arostegi eta Rikardo Agirreurretaren erakusketa Kultur Etxean. Herrian

zehar Bailarako txistullari taldearen kalejira.

13:30etan: Abere lehiaketaren sari banaketa. Lehiaketan eta erakusketan parte hartzen duten baserritarrei bazkari txartel bana emango zaie Herriko Ostatuan bazkaldu edo afaldu ahal izateko.

17:00etatik 19:00etara: Kontxi Arostegi eta Rikardo Agirreurretaren erakusketa Kultur Etxean.

17:30etan: Buruhandiak eta erraldoiak kalean zehar Txistulari Taldearen eskutik.

19:00etan: Sagardo dastaketa Herriko plazan.

23:00etatik 02:00etara: Trikitixa.

ZEGAMAKO KOOPERATIBA

- ✓ Janariak
- ✓ Pentsuak
- ✓ Drogeria



S. Martin, z/g

80 11 37

ZEGAMA



GAIARA, S. L. AUTOBUSAK

Mota guztietako bidaiak, nazional nahiz nazioartekoak
Eskatu aurrekontuak

80 14 39
ZEGAMA

88 59 69
BEASAIN



MUJIKA Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

80 15 07 - 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA

ERBIE ELKARTEAK ETA UDALAK ANTOLATUTA, AZAROAREN 24 an

Gabiriako errezil sagarren lehiaketa eta baserriko produktuen azoka

Azaroaren 24an goizeko 10etatik eguerdiko ordubietara izango da 1. errezil sagarren lehiaketa eta baserriko produktuen azoka Gabirian. Herritarrentzako lehiaketa da eta 13 partaide izan dira. Sariketaren emaitzak eguerdiko ordubata aldera emango dira.

Hau antolatzearen helburua batez ere herriari bizitasuna ematea da, herrira kanpoko jendea ekarri eta herria ezagutaraztea. *"Lehiaketan irabaziko diren sariengatik ez da gutako inor joango, helburua herrian zerbait egitea da"*, diote antolatzaileek.

"Kalitate oneko sagarrak aurkeztuko dira, ikusgarriak, herria leku onean dago kokatuta, bista ederrak ditu, eguraldi ona bada goiz pasa ederra egiteko aukera izango da, bertan bazkaltzeko ere bi jatetxe badira", jendea bertara inguratzera animatu nahi dute gabiritarrek.

Lehiakide bakoitzak bi saski sagar aurkeztu behar ditu, 40 kilo inguru. Saski guztiak neurri berekoak dira, Udalak erosi ditu, eta ez da inongo adornurik onartuko. Denera 500 bat kilo sagar izango dira lehiaketan

ikusgai. Aurkeztzen den partaide bakoitzari 3.000 pezeta emango zaio eta horretaz gain, lehenengorari 10.000 pezeta eta Unanue gozotegiaren trofeoa, bigarrenari 8.000 pezeta eta herriko ostatuaren trofeoa eta hirugarrenari 6.000 pezeta.

Epaimahaikoak hauek dira: Joxe Antonio Iparagirre, Zeraingo Otatzakoa; Martin Irazustabarrena, zaldibitarra, Gabiriako Ostatua hartu duena; Antton Olaizola, añorgarra, nekazal teknikaria. Ez zuten epaimahaian herrikorik jarri nahi izan, susmo txarrik ez sortzearen.

Iaz sortutako ideia

Iaz Santa Luzi eguneko lehiaketan herriko 2 geratu ziren lehen 3 postuetan. Horri buelta ematen hasi eta pentsatu zuten herrian horrelako lehiaketaren bat egin zitekeela, kontuan hartuta Gabiria dela inguruan errezil sagar gehientsuena duen herria. Aste kulturala egin zenean pentsatu zen hau antolatzea. Sagar lehiaketa bakarrik egin beharrean sagarrak saltzeko aprobetxatzea egoki ikusi zuten eta bide batez baserrietan dauden garaiko hainbat pro-



duktu: intxaurrak, urrak, babarrunak, gaztak... *"Horrelako festak antolatzen direnean, ikusle asko izaten bada ere saldu gutxi egiten da"* diote Erbiekoek.

Lehenengo urtea da eta Udalak subentzionatu badu ere, aurrekontu txikia dute. Propaganda egiteko dirurik ez dute, jendearengana iristeko arazoak izan dituzte eta ez dakite zer aterako den. Ondo ateratzen bada urtero egiteko asmoa dute, piskanaka ospea hartu eta jende gehiago inguratuko den itxaropenez. Denborarekin dirulaguntza gehiago jasoko dutela uste dute antolatzaileek.

Lehiaketa hau egiteko sasoirik egokiena azaroaren

bukaera edo abendua da, errezil sagarra orduan horitzen baita. Baina abendu haseran Erzeilen egiten dute errezil sagarraren eguna, gero Santa Luziak, Santo Tomasak etabar daude. Azaroaren 24an aurkitu zuten egunik egokiena.

Sagar ugari Gabirian

Inguruko errezil sagar gehientsuena bertan izango da. Gabiriak sail asko ditu, zabala da eta industria gutxi du. Betidanik izan da sagastietarako joera haundia. *"Laiotzetan sagasti gehiago dago eguterran baino. Geroz eta gehiago esaten da laiotzekoa egokiagoa dela, sagar itxurosoagoa ematen duela"*, diote antolatzaileek. Orain jende gaztea ari da sagastiak jartzen, baserriari irtenbideren bat emateko asmoz.

Sagar mota hau hain estimatua izatearen arrazoia, oso ona izateaz gain, batez ere konpota egiteko eta errete jateko, kanpoan ez dela produzitzen da. Kanpoko konpetentzirik ez du, horregatik da beste sagar moetak baino garestiagoa.

M. A.

KORTA
SAGARDOTEGIA ERRETEGIA
88 71 86 GABIRIA

OSTATU JATETXEA
Bazkariak Afariak
Ospakizun bereziak, bataio, jaunartze
Lagunarteko afariak
88 79 13 GABIRIA

GOIERRITARRA
88 96 12

GABIRIA

Giro ederra jubilatuen egunean



Joan den urriaren 20an ospatu zen Udalak herriko jubilatuz guztiei eskaini ohidien festa-eguna, eta guztira hirurogeiren bat lagun elkartzu zirela esan behar.

Ospakizunari hasiera emanez meza nagusia izan genuen, ondoren herriko dantzarien saioa eta honen ondoren bazkaria, aurtengoa Osinalde elkartean.

Ospakizun honen ba-

rruan opari berezia egin zitzaizen orain arte oparirik jasoz ez duten eta bertan zeuden herriko bi zaharrenei, Eztandako Juxtari eta Etxeberr-Bengoako Luis Lasari. Juxta zaharragoa badugu ere, biak ere 80 urtetik gorakoak.

Azkenik, bazkal ondoko giroa gehixeago alaitzearen bertsolariak eta trikitilariak aritu ziren.

Frantziako Gobernuaren "Ohorezko Legioaren" domina Rufino Jauregientzat

Gabirian 1913ko azaroaren 14an Agerretxemendi baserrian jaioak Rufino Jauregi Goiburu jaunak Frantziako Gobernuaren "Ohorezko Legioaren" domina jaso du joan den urriaren 5ean Ezpeletan.

Domina horren zergatia argitzeko Bigarren Mundu Gerrara jo beharko genuke. Garai horretan Rufino Iparraldean bizi da hemen Gerra Zibila sortu zenean ihesi joanda, eta Bigarren Mundu Gerrako garai horretan izan zuen eginkizuna Iparraldeko hainbat adiskideren senide eta lagunak mugaz alde honetara pasatzea izan zen.

Datorren urtean ere, aurtentzen izan diren guztiek egun hau zoriontsu ospatzeko

Naziek inguraturik zeuzkaten Frantziako Armadako zenbait ofizial pasatzeko eskea ere egin zioten eta baita bete ere ederki asko. Izan ere, 606 ofizial pasa baitzituen Lapurditik Nafarroako hegoaldera eta, harrigarria bada ere, ez zuen ofizial bakar bat ere bidean galdu. Armadako ofizialez gain, 400 zibil inguru pasatu zituen eta horrengatik guztiagatik eman dio Frantziako Gobernuak domina. Ospakizunean ziren, besteak beste, Frantziako Finantza ministroa, Ezpeletako Auzapeza eta berak mugan pasa zuen enbaxadore bat ere.

osasun eta patxada izan dezatela.

Gabino Murua

LEGORRETA

Udaleko Kultur-batzordeak eskulan ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Bi talde osatuko dira, bata astelehenetan eta bestea ostegunetan, bietan ere, arratsaldeko 5.30etatik 8.00etara. Ikastaroaren iraupen osoa 30 ordukoa izango da talde bakoitzarentzat eta hurrenez hurren azaroaren 18 eta 21ean hasiko da Kultur Etxean bertan, arratsaldeko 5.30etan.

Matrikularen kostua 1.700 pezetakoa izango da eta Udal bulegoetan izena ematerakoan ordainduak izan behar dute.

Gaiarekin jarraituz esan, iazko eskulan ikastaroan parte hartutako lagunen lanen eraskusketa egon zela ikusgai Kultur Etxean azaroaren 9 eta 10ean. Bertan saski, marmita, tapete, jaiotaza eta abar dotore askoak ikusteko aukera izan genuen. Zeuk ere gustora

Eskulan ikastaroa


egin gozatu zenituzkeela antzeko lanak? Animatzea besterik ez duzu. Ez da zaletasun txarra neguan etxe barruan gozo-gozo jardun ahal izateko!

Pako Eskitxabeli bisita

Urriaren 31ko ohizko osoko bilkuran HBK aurkeztutako presoen aldeko mozioa aho batez onartu zen. Udal ordezkariak batek, herriko preso politikoa den Pako Eskitxabeli, bisita egitea

onartu zen. Presoaren bizi baldintzak eta iritziak bere ahotik jasotzea derrigorrezkoa ikusten baita. Era berean, kartzelako zuzendariarekin ere hitz egitea beharrezkoa ikusten du HBK, eta baita Euskal presoak Euskal Herriartuak izan daitezen deklarazioa lortzen saiatzea ere.

Josune Amondarain



ondoeta

**ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.**

Nagusia, z/g. Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872 ITSASONDO

ORMAIZTEGI

Laster dira San Andres jaiak



Halaxe da bai. Datorren larunbatean hasiko dira aurten San Andres jaiak. Azaroaren 23 eta 24an Egun elegantea, umeen eguna eta jubilatuen eguna izango dira. Guztientzako festa beraz. Datorren aste-buruko egitaraua hauxe du:

Azaroak 23: Egun Elegantea (Umeen eguna):

11:00etan: Zatoz museora: Zumalakarregi museoko Zumagazte kide ormaiztegiarrek, Museoa erakutsiko diete haien guraso, aitona-amonak eta etorri nahi duten guztiari, beti ere museo gidarien laguntzaz. Ormaiztegiar edo kanpotar guztiak

daude gonbidatuta.

12:00etan: Kuadrilen bilkura Eleganteen eguna ospatzeko.

12:30etan: Gorriti eta bere animaliak, enparantza nagusian.

14:30etan: Bazkari herrikoia gazteentzako, enparantza nagusian.

17:00etan: Umeentzako dantzaldia Azkona taldearekin, Zumalakarregiko enparantzan.

18:30etan: Umeentzako txokolate jana, Guraso Elkarteak antolatuta.

Gauean: Herriko gazte-entolaturiko Rock kontzertua.

Azaroak 24: Jubilatuen eguna:

11:00etan: Mountain-Bike proba herrikoia. Ondoren Gabiriko dantza taldearen saioa.

13:00etan: Herri Kiro-lak: Perurena eta lau aizko-lari herri enparantzan.

16:00etan: Jubilatuen-tzako jokoak: mus, pote, puntu... Jubilatuen egoitzan.

17:30etan: Zubipe Kiroldegian eskuzko pilota jaialdia.

ORMAIZTEGIKO MENDIKO ASTEA



Azaroaren 11tik - 17ra

Mendi astea

Herriko jaien atarian Mendiko astea dugu. Astelehenean hasi zen eta Aconcagua, Khan Tengri eta Broad Peak mendiei buruzko ikusentzunezkoak ikusteko aukera izan da.

Gaur, azaroak 15, berriz, Kanchenjunga mendiari buruzko saioa izango da, Juanito Oiarzabalaren eskutik. Zubipe Kiroldegian izango da, arratsaldeko

7.30etan. Juanito Oiarzabal munduko 'himalayista' onen taldean dago.

Larunbatean, azaroak 16, Eskalada txapelketa izango da Zubipeko rokodromoan, goizeko 10.00etan hasita.

Igandean, herri inguruan mendi ibilaldia egingo da goizean. Arratsaldeko 6.00etan, berriz, gaztaina jana izango da herriko enparantzan. Ondoren filmak emanaldia eskainiko da Mendi Elkarteak antolatuta.

UNTXUNDEI

garajea

OSINALDE

karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06

ORMAIZTEGI

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 88 51 68

ORMAIZTEGI

ITXUNE ERRETEGIA



Gazte giroa

- **Taberna musikala.** Ostiralero zuzeneko emanaldiak: trikitixa, rock, jazz, antzerkia, e. a.
- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua 800 pzta.
- Pintxo, ogitarteko eta ifernuko txorizoa

Gabirialde, 14

☎ 88 73 51 - 88 89 92

ORMAIZTEGI

BEASAIN


Juan Mari Irizar 'Odolkiaren errege'



Beasaindarra dugu aurtengo 'Odolkiaren erregea'. Azaroaren 9an jokatu zen XII. Odolki lehiaketa eta eguraldia lagun zela, jende ugari bildu zen San Martin plazan. 34 odolki gile aurkeztu ziren guztira. Beasaindarrak 6, Ordiziakoak 4, Ormaiztegiakoak 2, Segurakoak 2, Lazkaokoak 1, Legorretakoak 1, Zegamakoak 1 eta Idiazabalgoak 1. Epaimahaian jende ugari izan zen. Besteak beste, Martin Alustiza, Aitor El-koro eta Jokin Errasti pelotariak; Lasurtegi eta Kliment arrauneko domina olinpikoak; Jon Jauregi alkatea; eta Miren Guenbe Ordiziako zinegotzia.

Juan Mari Irizarrek Martin Aranburu kalean du harategia. Loinazko San Martin egunean egiten den Kofradiaren bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu. Ama izan du odolki-irakasle Juan Mari Irizarrek. Sekretua odolkia mimo handiz egitean omen datza. Porruak eta tipula ondo txikitu eta ondo egos-tean. Poliki-poliki egin behar omen da. Astelehenean bertan nabaritu zuen bai Juan Mari 'Odolkiaren

errege' berria dela. Kanpo-ko jendea hasi zaio dendara odolki bila joaten. Zorionak!



Gaztedi eta kirolaren bulegoa martxan

Aste honetan bertan jarri da martxan Gaztedi eta Kirolaren zerbitzu bulegoa. Antzizar Kiroldegian kokatuko da, behe solairuan, gimnasioan. Ander Telleria arduratuko da gazteak behar duen informazioa eman, gestioak egin eta kezkak argitzeaz.

Informazio orokorra (ikastaroak, egonaldiak, lanbide prestakuntzak...), kirol eta gazteari buruzko hemeroteka eta liburutegia, gestioak, soldadutzaekin zer egin, objektua, intsumisia... bertan argituko dituzte.

Gaztearentzat erreferentzia puntua izan dadin nahi da. Zernahi behar duela Kiroldegira joateko ohitura har dezala gazteak. "Gazteak elkartu eta bideratzeko gunea" izatea nahi du Ander Telleriak.

Astearte, ostegun eta ostiraletan, arratsaldeko 3.30etatik 6.30etara egongo da zabalik. Hala ere, buzoia atean bertan egongo da, behar izanez gero. Udaletxeko Harrera bulegoan, goizez, informazio orokorra ere emango da.

Beasaingo Paperak

Azaroaren 18tik 22ra bitartean, Ezkiagako Auzo etxean, 18:30etatik 20:00etara, Beasaingo Paperak bildumako 5. zenbakia banatuko da. CAFen historiari buruzko liburua da aurtengoa, Elena Legorburuk egina. Datuekin betetako fitxa eraman eta 300 pezeta ordaindu beharko dira.

Oskorri

Udazken kulturala bukatu bada ere, kultur ekintzak ez dira bukatu. Azaroa ere beteta datorkigu. Azaroaren

24an esaterako, Oskorraren 25. urteurrena ospatzeko kontzertua izango da, Antzizar Kiroldegian. Kepa Junkera trikitilaria eta Kukubiltxo antzerki taldea ere bertan izango dira. Iluntzeko 7.00etan hasiko da jaialdia. Sarrera: 1.000 pezeta.

Gazte festa

Azaroaren 15 eta 16an gazte festa ospatuko du Gazte Asanbaldak, 'gazteok batera gaztetxea helburu' lelopean. Festa guztia plaza azpian izango da eta honez gain bi egunetan kalean zehar animazioa ere izango da. Ondorengoa da gazte festaren egitaraua:

Azaroak 15, ostirala:

18:30etan: Udaletxea eskalatu. Ondoren, Gaztetxei buruzko hitzaldia eta manifestazioa.

20:00etan: Poteoa.

21:30etan: Kontzertua: Discipulos de Dionisos, Aerobitch eta Hot Dogs taldeekin. Sarrera 300 pzta.

Azaroak 16, larunbata:

11:00etan: Graffiti egiten hasi.

12:30etan: Poteoa.

14:30etan: Bazkaria, ensaladila, oilaskoa patatekin eta mamia, 1.200 pezetan.

15:30etan: Bertsolariak.

16:30etan: Herri kirolak.

17:30etan: Herri olinpiada.

21:30etan: Kontzertua: Gor, Azken zuzia eta Illusions taldeekin.

Izaskun Salazar

SEGURA

Arbola inausketak eta ateratzeak



Adar mozketak

Mendi garbiketa, zuhaitz landaketa-zainketa eta baso lanetan ibiltzen diren Errebaleko Rafaelito Imaz eta Zegamako "Aizkorri Basolanak" enpresako 4 sozio lagun aritu ziren azaroaren 5, 6 eta 7an, igerilekuko, Ganadu plazako, arbolariko, bolalekuko, Antonkalene aurreko, Jermaneneko alboei eta Madalenako aldapako albo eta lizarrei adarrak mozten. Lizarrei, lehen ziztuztenetatik, dozena erdi bana adar utzi dizkiete, kimuak adarretan atera daitezzen eta ez hainbeste, enborean. Arbola adarrak, urte-

ro bezala, Udalaren bajeran gorde dituzte, gero San Joan Suan erretzeko. Lan honetan urteetan aritutakoa da Bonifaxio Lardizabal ere: *"Dozenaren bat urte egin nituen lan horretan. Axkue-taerdiko Tomax, Omiñoko Daniel, Axkuetako Lontzo, Markittegiko Inazio eta hauek ere ibili ziren. Badira 5en bat urte nik utzi niola; azkenekoan, gainera bakar-bakarrak aritu nintzen. Orain baino beranduxeago mozten genizkien adarrak. Moztu, hori bai, behetik gora, azala gera dakion pujea irtetzeko. Guk beti aizkora erabili izan dugu, baina lehen, zerraz mozten zituzten banan banan; dañu txikiagoa egiten zaio arbolari. Lanik zailena, arbolarian, Aste Santuko pasoentzat eginda dagoen arkuko adarrak moztea izaten zen, al-tueraz gain, adarrak ere meheagoak baitira".*

Gabon pinuak

Gabon pinuak zaindu, lotu eta ateratzen ere aritzen dira "Aizkorri Basolan"ekoak. Urrian hasita, somara, dagoeneko 65.000 pinu lotu

dituzte Segura eta Zegama aldean; orain, berriz, Santa Luziak aldera arte, atera egingo dituzte.

Muttiko dantzak

Iaz bezalaxe, Elorri Kultur Elkartek antolatuta, Iparraldetik etorritako dantzari eta soinu-joleek, muttiko dantzen ikastaroa emango dute, azaroaren 16an, 11:00etan hasita, goizez eta arratsalde, Baratze Pelotalekuan. Interesatuak frontoira ager daitezela.

Gurasoen batzarra

Haitz-lehor, Laiotz Herri Eskolako neska-mutikoen gurasoen batzar orokorra egingo da azaroaren 22an, 19:00etan, Kultur Etxean. Bertan, 95-96 ikasturteko balantze ekonomikoa eta 96-97rako aurrekontuak, 96-97 ikasturterako proiektu eskolarra eta Loinazpeko informazioa azalduko dira besteak beste. Pasa den ikasturteko balantze orokorra liburuska batean aurkeztu eta banatuko da batzar berean.

Kantoreen eguna

Santa Zezilia, musikari eta kantoreen eguna, azaroaren 22an bada ere, herriko koroak, 24an, 12:00etako meza nagusian Pedro Bilbaok 3 bozetara konposatutako meza kantatuz eta ondoren Imazenean bazkalduz ospatuko du bere eguna.

Futbola

***Asteburuko emaitzak:** **Infantilak:** Aizkorri 0-1 Herrera. **Kadeteak:** Hondarribi 3-2 Aizkorri. **Jubenilak:** Segura 1-3 Urnieta. **Errejonak:** Mondragon 3-1 Segura.

***Asteburuan etxean: Kadeteak:** jaien, 12:00etan, Aizkorri-Billabona. **Errejonak:** jaien, 16:00etan, Segura-Eibar.

Labur labur

● **Gabonetako loteria** salgai dago, Beheko Alkilerren, Eroslen, Antonkalenen, Pako Ostaturen, Atsedenen, Imazenen, Madalenan eta Elorripen.

● Azaroaren 8an zozketatu ziren ehizerako **koto sozialeko loteak** partzoneriko 6 herriren artean. Segurari 14 lotte tokatu zitzaizkion. Txoritegi elkartearen zozketatutako dira gaur, azaroak 15, ehiztari interesatuen artean eta azaroaren 23an egin beharko da ordainketa Udaletxean.

● Azaroaren 10ean korritu zen **Behobia-Donostia** lasterketan, Iñaki Telleria, Salus Aranburu, Ramon Telleria, Mari Karmen Elorza, Peio Agirrezabal, Egoitz Berasategi eta Zeles Sodupe behintzat izan ziren.

● **Mendi irteera:** Laiotz Herri Eskolakoak Txurruko puntara joango dira azaroaren 17an, 8:30etan plazatik irtenda.

● Kutzak 1997rako aterako duen egutegian, martxoan, **Segurako neska-mutiko koadrila** azaltzen da, Aste Santuko prozesioan nazareno jantzita.

● Azaroaren 17an, 12:30etan Liernin izango duten mezaren ondoren, **Telleriarrren bazkaria** izango da Patxi Erretegian.

● Herriko zenbait lagun, **burugorren afaria** prestatu nahirik dabil. Komodore handi samarra beharko dutela eta, zehaztu gabe dituzte lekua eta eguna.

Joseba Telleria



Inutillen afarie

Soldaduzkaz katxondeatu eta umore onaren ohiturari jarraituz, bertara joateko inutil izendatuak izan zirenak, azaroaren 30ean, 5. aldiz elkartuko dira urteroko afaria egiteko. Izenak, tabernetan jarri diren txarteletan eman behar dira.

ORDIZIA

'Ahoz aho, belaunez belaun' erakusketa

Udaleko Euskara Azpibatzordeak Eusko Jaurlaritzaren deialdiari erantzunez antolatutako erakusketa du gu "Ahoz aho, belaunez belaun". Helburu zehatza izango du, euskararen erabilera eta aldeko jarrerak sustatzea, belaunez belaun iraun dezan ziurtatzea eta eragile guztien arteko harremanak euskaraz izateko bideak bultzatzea. Erakusketaren antolaketan, dena den, euskara azpibatzordeak Hitzaro, AEK eta herriko ikastetxeen laguntza izan du.

Kanpainak nagusiki haurrengan eragin nahi du, eskolaren bitartez euskara erabiltzearen garrantziaz jabetuaraziz. Guraso eta gurasogaiengan ere eragin nahiko du, haurren mundura hurbiltzearekin batera, gure hizkuntzan murgil daitezen.

Erakusketa Barrena Jaurregian egongo da ikusgai azaroaren 18tik 30era bitartean. Goizean ikastetxeetako ikasleen bisitak izango dira eta arratsaldeak interesatuak dauden beste guztientzat egongo dira irekita ateak. Bertan, erakusketa atseginagoa izan dadin, egitarau oparoa antolatua dago, besteak beste pailazoak egongo direlarik asteburuan. Ipuin kontaketa, bertso txokoa, diaporama helduentzat, joku didaktikoak... hor izango dira baita ere, guztiek euskararekiko sentsibilizazioa lortzea izango dutela helburu. Guztiok Itsaso eta Ibai izango dituzte protagonistatzat, guztia era egokian azaltzen saiatuz.



Herri gunea Monumentu Maltzo izendatua

Ordizia Kultura Ondasun gisa Monumentu Maltzo izendatua da. Era honetan, herriko guneak eta eraikintzak baloratu egin dituzte. Babes berezia duten elementuak adibidez, Abaria etxea, Barrena jauregia, Santa Maria Parrokia, Zabala jauregia eta Udaletxea dira. Erdi mailako babesaren elementuak: Infantadoko dukearen eta bere administratzailearen etxea, Barrena jauregiaren eranskina, Santa Maria kaleko 4, 5 eta 6. zenbakiak, Enparantza Nagusiko arkupeak eta Anai Andresen monumentua. Besteak oinarritako babesaren elementuak, elementu ordezgarriak edo bat ez datozen elementu bezala baloratu dituzte.

Informazio zabalagoa jaso nahi izanez gero, Barrena jauregian duzue erakusketa. Bertan herri guneako eraikin bakoitzak duen balorea edo maila azaltzen da.

Beste herri batzutan "Ahoz aho, belaunez belaun" erakusketa honek izan duen erantzuna ikusita, ziur Ordizian ere jendea animatuko dela Barrenara hurbiltzen, begiradaxo bat botatzeko asmoz eta era berean euskarari jarraipena eginez.

Kamioien aparkalekua

Errepidetako garraiobide handiek, kamioiek, egun aparkaleku gisa erabil dezaketen leku finkorik ez

duenez, ikerketa batzuk egiten ari da Ikaur enpresa. Goierri aldeari dagokionez 9 aparkaleku posible ikusten ditu enpresa honek eta horietatik 2 Ordizian leudeke. Egun asfaltozko elarapenak egiten diren ingurunea aproposa ikusten dute baina kokagune honek Aramaren lurak ere hartzen ditu eta badirudi hauek ez daudela batere ados. Bestalde Trebijano rugby-zelaia dagoen ingurua ere leku posibletzat hartzen du

Ikaur-ek egindako lanak. Baina jakina da hemen Udalak beste asmo batzuk dituela (feri-gune berriarena hain zuzen) eta posibilitate antzutzat har daiteke azken hau. 9 aparkaleku ahaletzko horietatik badirudi lehenengo aipatu dizuegun honek posibilitate handiak dituela aukeratua izateko.

Begiraleak

Hitzaro Euskara taldeak aisi taldea martxan jartzeko asmoa du datorren martxoan, 1go, 2. eta 3. mailako haurrengat. Horretarako, ordea, begiraleak kontratatu eta prestatu nahi dira. Begiraletarako baldintzak hauek dira: ordiziarra izatea, 16 urte beteta izatea eta haurrekin jolastea gustoko izatea. Hitzarok adierazi digunez, etorkizun handiko lanbidean lehen urratsa emateko aukera izango da, euskarari bere aportazioa egin, eta astebururako diru piska bat irabazteko aukera ere bai. Informazio gehiagorako Hitzarora deitu: 16 23 66.

Antzerki Tailerra

Antzerkia gustoko izanez gero, Antzerki Tailerrak zure aktore dohainak erakusteko aukera eskaintzen dizu. Euskarazko antzezlan bat prestatzen hastekotan dira. Beraz, bertan parte hartu nahi izanez gero, dei Marisol Caverori 16 00 39 telefonora.

Aitor Calvillo

ZALDIBIA

46 hil-habia egingo dira kanposantuan

Udalak 7 milioiko aurrekontua onartu du herriko kanposantuan, lehenengo ekitaldian, 46 hil-habia edo nitxo egiteko. Lau hilabete barru amaituta egongo dira obrak. Hiltzen den pertsona kopurua kontutan izanik, 46 sei hil-habia hauek 4 urteko zerbitzua eman lezakete. Hau da, 2. fasea amaiturik egongo dela ordurako.

Bestalde, orain arteko heriotza-tasak kontutan hartuta, 15 urte eduki ahal izango da hildakoa hil-habian. Hortik aurrera bi aukera izango familiak: hezurtegi elkartuan sartu edota hezurak bakarka gordetzeko erakiko diren kutxatila antzeko hil-habiatxo txiki horietako batean gorde.

Obrak berehala hastekoak direnez, lehenengo bi iladetan familiarrak dituztenak adi antzean egon daitezela, laster jasoko dute eta haien gorpua ateratzera doazela abisua.

Mediku-etxea berritu

Mediku-etxeko kontsultategia berritzeko, 6 milioiko aurrekontua onartu du Udalak. Kostuen % 90a Euskal Gobernuak subentzionatuko du. Berrikuntza hauei esker,

despatxu handiagoak izango ditu eta, bestalde, Ibarguren aldetik, elbarri eta momentuko ibili ezina duten gaixoentzat irispide berria egingo zaio, gurgildun silak-eta arazorik gabe mugi daitezela.

Tasa eta zergak

Udalak zerga eta tasen baremo berria ipini du martxan eta prezioak eguneratu. Kaleetxeen zerga % 2,50 igoko da eta, igoera barne, udalak 9.600.000 pezeta jasoko ditu. Iharduera ekonomikoen gaineko zerga % 4,76 igoko da. Honek esan nahi du, kontzeptu honengatik guztira, 13.619.000 pezeta sartuko direla Udaletxean. Zirkulazioaren gaineko zerga ere portzentaia horixe bera igoko da, Udalak 6.810.000 pezeta jasoko ditu arlo horri esker.

Zabor-bilketak ere gora egingo du, kasu honetan % 9,09koa izango da igoera etxe normaletako zaborrentzat eta % 9,85koa zaborra industrialentzat. Zerbitzu honen 4.200.000 pezetako zuloa uzten dio Udalari, 1.400.000 pezeta besterik ez baita biltzen; zerbitzuaren kostua, berriz, 5.600.000 pezetakoa.

Etxetako ura % 5a igoko da, hiru hilabete epean 30 baino gutxiago kotsumitzen dutenentzat; % 41, 30 eta 50 metro kubikoko tarte horretan ibiltzen direntzat, eta % 8,57, 50 metro kubikotik gora gastatzen dituztenentzat. Aipatu dugun baremo horren arabera, prezio berriak hauek izango dira goiko hiru talde horientzat, 21, 29 eta 38 pezeta metro kubikoa. Komertzio eta industrian gastatzen den ura % 3,13a, % 5a eta %10a igoko da, kontsumo-mugak lehen aipatu ditugun berberak direlarik. Prezio berriak, beraz, hauek dira: 33, 42 eta 55 pezeta. Udalak uraren bidez 5.850.000 pezeta jasotzen ditu eta mantentimenduan 4.000.000 de pezeta gastatu.

Maniobra militarrik

Orain dela hilabete bat-edo ejertzitoak burutu dituen maniobrak direla eta, HBren mozioa onartu du Udalak: a) Ejertzitoa herrian egiten ari izan den maniobrak salatzea eta sarrera debekatzea, b) Euskal Herriatik alde egin dezaten eskatzea, c) Herriarren baten eskubideak zapalduko balitu, laguntza juridikoa es-

kaintzea, d) Akordio hauek hedabide, gobernadore Militar eta Madrildo Defentsa Ministeritzari helaraztea. ZUTek kontrako botoa eman zuen, soldadu batzuen pasae-ra soila baino gauza grabeagoak gertatu direla oraindik orain herrian eta horren kontra HBk ez duela ezer egin argudiatuz.

Itxialdia

Herriko 31 lagun itxialdian egon ziren aurreko larunbat gauek igande eguerdira arte, Iker Atxotegi preso herri-tarrarekin solidarizatu eta gaineratiko euskal preso guztien eskubideen aldeko jarre-ra adierazteko. Itxialdiaren amaieran komunikatua plazaratu zuten han izandakoek. Komunikatu horretan esaten denez, "Atxo"k eta beste preso batzuek 19 egun daramatzete gose-greban. Bestalde, presoek eskubide guztiak errespetatu, gaixo daudenak askatu eta denak Euskal Herria ekartzeko eskatzen da. Azkenik, herritarrei gonbitea luzatzen zaie asteazken eta ostiraletan iluntzeko 8:45tik 9:00etara itzalaldian parte hartzeko.

Rufino Iraola

ITSASONDO

Talo festa azaroaren 23an

Kultur elejirari eta azken batean udazkenari agur esateko, talo festa antolatu du aurreko Kultur-batzordeak, azaroaren 23rako. Antzerkia eta hitzal-diak izan dira Kultur elejiran.

Larunbatak 23an, berriz, 18:30etan hasita, nahiko talo jateko aukera izango da, herri emakume talde baten eskutik.



Dohainik izango dira.

Talo janaz gain, ordea,

izango da besterik, artisautza erakusketa izango baita pilotalekuan. Kanpotik etorritako artisauek pelotak nola egiten dien, buztina tor-nuan nola lantzen duten eta egurra nola tailatzen duten izango da ikusgai.

Herriko artistek, berriz, zera erakutsiko digute: Mikel Otegi presoak kartze-

lan egindako lanak erakutsiko dira; Joxe Mari Urbistondo eta Julitak artilea landuko dute; Jose Inazio Gonzalezek egurra landuko du; Jesus Mari Ibarguren, baserriko tresnak egingo ditu egurra landuz; Pedro Landak etxeen maketak egingo ditu egurrez; eta urtean zehar eskulan ikastaroan parte hartzen ari den emakume taldearen abileziak ikusteko aukera izango da.

LAZKAO

'Lazkao 96' Argazki lehiaketa

Udalak Argazki lehiaketa antolatu du parte hartu nahi duen argazkizale ororentzat. Lehiaketetan ohi denez, partaide guztiek arau batzuk bete beharko dituzte.

Landu beharreko gaia, Lazkaoko herria izango da; honela, herriko festak, paisaia, eraikuntza, pertsonaia, ohitura eta kirolei buruzko argazkiak atera ahal izango dira, zuri-beltzean nahiz koloretan. Bestalde, lanen neurriak zehazterakoan, hauek 30 x 40 zm.-ko euskarrian aurkeztu beharko dira; hala ere, egileak berak aukeratuko du argazki-irudiak zer neurri izango duen euskarriaren barruan.

Gainontzean, parte hartzaile bakoitzak 3tik 6 argazki bitartean aurkeztu beharko ditu, eta gai ezberdinak landu. Lehiakideek kontuan izateko beste datu bat honakoa dugu: bidalitako argazkiak inoiz beste lehiaketa batetara aurkeztu gabeak eta saritu gabeak izan beharko dute. Gainera, aipatu argazkiak, dagozkien negatibo eta diapositibekin aurkeztu beharko dira.

Lanak aurkezteko epea abenduaren 13an bukatuko da, eta postaz edo eskuz —Udaletxera bertara eramanez— aurkez daitezke: egilearen inongo daturik gabe eta atzealdean izenburua soilik adieraziz. Egilearen datu guztiak, telefono zenbakia eta lanaren izenburua

kartazal itxi batean adieraziko dira; kartazal honen kanpoaldean berriro lanaren izenburua jarri beharko da.

Epaimahaia dela eta, Kultur-batzordeko partaide eta herriko argazkigintza alorreko zenbait adituez osatua egongo da. Sariak, berriz: 40.000 pezeta eta plaka bat izango dira lehenaentzat, 25.000 eta plaka 2.arentzat; 3.arentzat 10.000 pezeta eta plaka bat. Aipatzekoa da, halaber, aurkeztutako lan guztiak Udalen ondasunerako geldituko direla. Lan hauekin gainera, erakusketa bat egiteko asmoa da Udaletxean ber-



Goiherriko Euskal Eskolak deituta urriaren 26an gaztaina bilketa egin zen. Ondoren azaroaren 8an Gerriko txokora hurbildu ziren guztiek gaztaina hauek jateko aukera izan zuten.

Oraintxe aipatutako marrazketa eta pinturarenaz gain, musika ikastaroak antolatu dituzte. Uhaitz kaleko eskolaurre-etxean biltzen dira saio hauetara animatu direnak, hau eta gazteak, hain zuzen. Helburu nagusia, musika zaletasuna piztu eta bultzatzea. Hona hemen ikastaroaren

tan.

Marrazketa-irakasle bila

Udalak marrazketa eta pintura ikastaroak antolatzeko asmoa duela adierazi nahi die lazkaotar guztiei. Irakasleak behar dituzte, ordea, eta honetarako, deialdia luzatu dute: lazkaotarra baldin bazara, Arte Ederretan lizentziatua eta euskalduna, azaroaren 29a baino lehen Udaletxean izena eman dezakezu. Argibide gehiago bertan izango da.

Musika eskaintza zabala

Ugariak dira egunotan herrian ditugun ikastaroak.

mamia:

Aukera ezberdinen artean, 4 eta 5 urteko hurrek musika munduan barneratu eta hau hobeto ezagutzeko egokiera daukate. Honez gain, solfeoa, txistua eta beste zenbait instrumenturen erabilera erakusten zaie. Azkenik, dantzarako txistu ikastaroa ere aipatzekoa dugu.

Orainartekoa gutxi baltz, bada beste ikastarorik; txalapartarena hain zuzen. Goiherriko Euskal Eskolak antolatua da eta larunbatean ariko dira txalapartariak jo eta ke.

Koldo Urrestarazu
Urko Irastorza

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



Xikel

NEVES

BANATZAILEA

ARMAIRU
ENPOTRATUAK

- ✓ Barnizatuak
- ✓ Lakatuak
- ✓ Espilluarekin
- ✓ Persianilla

Senpere Merkatalgunea - 38 lokala
☎ Erakusketa: 161606 - Mugikorra: 908 772107

BEASAIN

MGUAR

MONTAIA ELEKTRIKOAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
BERRIKUNTZAK OROKORREAN

Berehala zabalik

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580 / 908-000831

ORDIZIA

'MURUMENDIKO MARI' BEASAINEN AURKEZTUKO DA AZAROAREN 27an: Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilarien lehen diskoa

Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilari beasaindarrak, 'Murumendiko Mari' diskoa kalean izango da laster batean. Beasainen egingo dute diskoaren aurkezpena, azaroaren 27an, Usurbe Antzokian, iluntzeko 8.00etan.

Lehenengo diskoa dute 'Murumendiko Mari'. Aurretik pare bat maketa zituzten. "Beti izan dugu helburua diskoa grabatzea. Arantxak erabakia hartu zuen, panderoa jotzen uztearena. Eta hainbeste sari irabazita pena ematen zigun diskoa atara gabe bukatzea. Diskoa atera dugu baina arrebak panderoa jotzen jarraituko du", esan digu Koldok.

Erritmo klase mota asko bildu dituzte diskoan. Fandangoa, arin-arina eta kalejiratik hasi, bals, rantxera eta pop-rock-eraino. Trikitixa eta panderoaz gain, hainbat instrumentu sartu dituzte.

Txalaparta: Igor eta Zaldorninek; Irrintzia: Mertxe Etcheberria izebak; flauta Saioa Iparragirre arrebak; bajua eta kontrabajua Txema Garcesek; pianoa eta teklatura Karlos Gimenezek; bateria eta perkusioa: Mixel Longaronek; eta kitarra: Pascal Gaignek.



Abestiak zaharrak eta berriak. Hizkiaren egileak punta-puntako bertsolariak: Aitor Sarriegi beasaindarra, Mikel Mendizabal, Manuel Lasarte eta Sebastian Liza-so.

Diskoaren izena Beasainekin lotura duena jartzea pentsatu zuten. Hori dela eta, "1993an Euskadi Irratiak aurkeztutako txapelketan lehenengo aldiz parte hartu genuen 'Murumendiko Mari' lanarekin. 16 txapelketetara aurkeztu eta 14 sari irabazi ditugu baina sari horrek ilusio berezia egin zigun", argitu du.

Sortu berria den 'Kata-rain Estudio'-etan grabatu dute diskoa. "Nik uste grabaketan errekorra egin dugula, 7 egunetan grabatu dugu. 7 egunetan 14 kanta grabatzea instrumentu guzti horiekin, errekorra da".

Komertziala ez

Diskoa oso polita gelditu da, oso fina, Koldoren esanetan. "Guk jotzen dugun musika benetan hori dela ikusten da. Adin guztietako pertsonentzako diskoa da. Ez da disko komertziala, eseri eta ondo entzutekoa baizik. Argi dago Gozategitarrek izan duten arrakasta hori ez dugula lortuko".

Diskoaren aurkezpena beasaindarren aurrean egingo dute. "Beste leku batean eginda jende gehiago joateko aukera egongo zen, trikitizaleagoak direlako edo. Baina gu beasaindarrak garenez, garbi geneukan, Udalaren laguntza izanez gero behintzat, Beasainen aurkeztuko genuela".

Talde bezala


Urtean zehar 60 bat saio ematen dituzte Iparragirre anai-arrebek. Ezkontzetan

asko jotzen dute. Diskoa kaleratu ondoren, talde bezala joko dute: trikitixa, panderoa, bajua eta bateria. Bide honetatik lan gehiago egitea espero dute. Koldo trikitilaria bada ere, soinu handia ikasten ari da. Bi soinuak ondo jotzen jakitea du helburu beasaindarrak.

Trikitixaren egoeraz ere galdetu diogu Koldori. "Hori da trikitilari bati egin ohi zaion betiko galdera. Nik sekula baino hobeto ikusten dut. Agian okerrrena ikusten dudana da, erromerietan dantzarik ez egitea. Galdera dantzariei buruz egin beharko litzateke. Trikitixak niretzako aurrerapauso handiak eman ditu. Trikitixarekin edozein musika klase jotzen da gaur egun, talde askok sartzen dute trikitixa. Akademiak beteta daude. Duela bi urte hasi nintzen eta momentu honetan ia 80 ikasle dauzkat Beasaingo akademian, Lazkaoko Ikastolan, Alegia-ko Kultur Etxean eta Oiarz-tingo Ikastolan".

Beasainen ireki berria du Trikitixa akademia. Trikitixa eta panderoa erakusten da bertan. Solfeorik gabe ere ikas daitekeelako aukeratzeko omen du jendeak trikitixa. Noten ordean, zenbakien bidez ikasten dute.

Loinaz Agirre



JOAN ITURRALDE KALEA, 5 BEHEA

Tfnoa.: 907 / 43 01 04

Etxekoa: 88 50 85

BEASAIN



Alkartasuna Lizeoko 1973ko belaunaldia

Ana Merchanek utzi digu argazkia, beraien irakasle zen Juan Manuel Barandiarani opari egiteko asmoz. 1980an Alkartasuna Lizeoan lehenengo maila egin zutenen argazkia da, eskurtsio batetik bueltan ateratakoa.

Goiko lerroan, ezkerretik eskubira: Eider Cano, Aitziber Etxeandia, Miren Arza, Idoia Garmendia, Unai Agirre, Asier Altuna eta Santi Aranburu.

Erdiko lerroan: Ainhoa Larrea, Josune Garzon, Idoia Lizarralde, Asier Arakama, Igor Mate, Aitor Jauregi, Asier Lasa, Maider Juanes, Maider Goia, Igor Lasa, Olaia Lizarralde eta Mikel Enparantza.

Aurreko lerroan: Karmele Zaldua, Jon Pejenaute, Alberto Rodrigo, Olatz Etxezarreta, Gorka Begue, Aitor Beristain, Aitor Zabaleta, Itxaso Uria, Ana Merchan, Edurne Arizkorreta eta Jon Gorrotxategi.



☎ 88 55 00 ORDIZIA

ARTELEKU Rosa Maria Gullón



- Marrazketa artistikoa
- Oleoak, porzelanak
- Egur, eskaioa eta metalen ikastaroak

Enkarguz lanak egiten dira

☎ 16 23 74 Faxa: 88 34 32

J. Iturralde, 7 tarteko oina BEASAIN



LADA

N-1, z/g
☎ 88 09 47

ARANDIA Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

URBITARTE sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

AZTERKETA BAKARRAREKIN


UNIBERTSITATERA SAR ZAITEZ
25 URTETIK GORAKOENTZAT

LH--1 TITULUA
LOR EZAZU

GRADUATU ESKOLARRA
LOR EZAZU

INFORMA ZAITEZ
40 05 98 edo 39 74 37

Benito Lertxundi



SARRERAK:
AURREZ: 800pta.
EGUN BEREAN:
1.000pta.

ORDIZIA:
Herrikoa; Orlegi,
Nahikari.
BEASAIN:
Itzala, Arrano, Nañarri,
Loinaz.
ITSASONDO:
Ibarre, Gaztetxea.
SEGURA: Elorripe.
ZALDIBI:
Joxepane, Ilati,
Beti Gazte.
ATAUN:
Troskaeta, Sutegi.
TOLOSA:
Intxurre, Raku.
LEGAZPI: Karibe.
URRET XU: Aldiri.
LAZKAO: Gerriko,
Antsotegi

Diska
berriaren
aurkezpena


**EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA!**

ORDIZIA

AZAROAK 16 LARUNBATA
10,30etan MAJORI POLIKIROLDEGIAN



Benito Lertxundi



SARRERAK:
AURREZ: 800pta.
EGUN BEREAN:
1.000pta.

ORDIZIA:
Herrikoa; Orlegi,
Nahikari.
BEASAIN:
Itzala, Arrano, Nañarri,
Loinaz.
ITSASONDO:
Ibarre, Gaztetxea.
SEGURA: Elorripe.
ZALDIBI:
Joxepane, Ilati,
Beti Gazte.
ATAUN:
Troskaeta, Sutegi.
TOLOSA:
Intxurre, Raku.
LEGAZPI: Karibe.
URRET XU: Aldiri.
LAZKAO: Gerriko,
Antsotegi

Diska
berriaren
aurkezpena

**EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA!**

ORDIZIA

AZAROAK 16 LARUNBATA
10,30etan MAJORI POLIKIROLDEGIAN



18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

- Interes-tasa berezia.
- Libreta edo taloitegia aukeran.
- 50.000 pta.ko kreditu iraunkorra.
- Dohaneko ServiRed Txartela.
- Lehentasunezko interesa kreditu hipotekario eta pertsonaletarako. Eta ikasketetarako kreditua 5 urtera.
- Bidaiak eta hizkuntz-ikastaroak atzerrian.
- Gaztearentzako informazio-telefonoa 900 20 00 00.



**Euskadiko
Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuena.**



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

